



ZUZENBIDE FAKULTATEA

ZUZENBIDE GRADUA

2018-2019 Ikasturtea

GRADU AMAIERAKO LANA:

*“Kontzertu Ekonomikoaren izana, oraina eta geroa.
Kontestu berrietara egokitzen jakin duen figura
juridikoa”*

Ikaslea: Ane Galardi Valero
Zuzendaria: Maite Zelaia Garagarza

“Euskara de herri honen nortasunaren sinbolo nagusia, eta Kontzertuak berak bezala zera esaten digu: hemen bada nondik datorren ongi dakien herri bat. Hemen badira nondik gatozen eta nora joan nahi dugun dakiten gizon eta emakumeak”. Pedro Luis Uriarte

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. KONTZERTU EKONOMIKOAREN JATORRIA ETA TESTUINGURUAN JARTZEA	6
2.1 Abiapuntua.....	6
2.2 Kontzertu Ekonomikoaren jaiotza eta 1876 urtera arteko ibilbidea	7
2.3 Kontzertu Ekonomikoaren eraentza 1876 urtetik sistema politiko frankistaren eraketara arte.....	10
2.4 Kontzertu Ekonomikoaren berraktibatzea eta indarrean dagoen eraentza juridikoa	11
3. KONTZERTU EKONOMIKOAREN ANALISI JURIDIKOA.....	14
3.1 Kontzertu Ekonomikoaren funtsa.....	14
3.2 Kontzertu Ekonomikoaren legitimazioa.....	15
4. KONTZERTU EKONOMIKOAREN FUNDAMENTAZIOA: ZERGA ANIZTASUNAREN ONARPENA	20
4.1 Zerga eraentza aniztasuna Espainian	20
4.2 Nafarroa.....	22
4.3 Kanariar uharteak.....	24
4.4 Ceuta eta Melilla	27
5. KONTZERTU EKONOMIKOA ETA EUROPAR BATASUNAREN ARTEKO UZTARKETA.....	29
5.1 Abiapuntua.....	29
5.2 Autonomien Estatua eta EB.....	30
5.3 Kontzertu Ekonomikoa Auzitegien aurrean hizpide.....	32
5.3.1 AGren 2004ko abenduaren 9ko epaia	32
5.3.2 EBko Justizia Auzitegiaren 2006ko irailaren 6ko epaia	38
5.3.3 EBko Justizia Auzitegiaren 2008ko irailaren 11ko epaia	40
6. ZERGA ERAENTZARI EMANIKO TRATAERA EUROPAR BATASUNEKO ESTATU DESZENTRALIZATUETAN: ALEMANIAREN ERAENTZARI HURBILPENA	42
7. ONDORIOAK.....	43

1. SARRERA

Lan honetan, Euskal Autonomia Erkidegoa hain berezi egiten duen Kontzertu Ekonomikoa aztertuko dugu. Kontzertu Ekonomikoa Euskal Autonomia Erkidegoak duen ezaugarri nabarmenetakoa da. Autonomia Erkidegoek polizia propioa, hizkuntza, eskubide zibil autonomikoak... izan ditzakete, baina horietaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoak zerga arloan du autonomia. Kontzerturik gabe, Euskadi beste eskualde bat gehiago izango litzateke, besteak bezalakoa, baina Kontzertua da Euskadi berezi eta bakarra egiten duena.

Kontzertu Ekonomikoa Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernuaren oinarri izanik, erakunde honen jatorria, oraina eta, ahal den neurrian, etorkizuna aztertzea izango da lan honen helburua.

Paradojikoak badirudi ere, Kontzertu Ekonomikoa Lurralde Historikoei zigor moduan ezarritako neurri gisa jaio zen, hori dela eta, lan honen lehenengo zatian figura honen jatorrian sakonduko dugu, gaur egun, ia 141 urte beranduago, berau indarrean egotea ulertzeko ezinbestekoa delako.

Kontzertu Ekonomikoaren bilakaera historikoan bi fase bereiziko ditugu. Lehenik eta behin, Kontzertuaren aurrekariak aztertuko ditugu 1876 urtera arte, izan ere, Kontzertua ez da opari moduan bat batean sortutako figura edo neurria, baizik eta historia eta Euskal Lurraldeek urtetan zehar bizitako egoeraren ondorio da. Gerora, 1876 urtean foruak deuseztatu zirenetik gaur egun arte Kontzertuak izandako ibilbidea aztertuko dugu.

Aztergai dugun erakundeak eszenatoki politikoan etsai ugari dituela aski ezaguna da. Askok abantaila dela diote, hau da, berdintasuna urratzen duen neurria. Ez dute ulertzen Euskal Autonomia Erkidegoak araudi orokorretik ezberdintzen den zerga eraentza berezi bat izatea. Baina aurrerago ikusiko dugun bezala, ezin da ukatu Estatuan behintzat guztiz legitimatuta eta oinarrituta dagoen neurria dela, 1978ko Konstituzioak berak aurreikusten duen lez. Eta ez Konstituzioak soilik, lan honetan ikusiko dugun eran, Kontzertuak espainiar ordenamendu juridikoarekiko eta gizartearekiko bateragarritasuna duela argudiatzen saiatuko gara.

Kontzertu Ekonomikoa testuinguru orokor batera eramanez, ohartuko gara zaila dela munduko beste edozein estatutan Kontzertu Ekonomikoaren antzekoa den figuraren bat topatzea, izan ere, Nafarroak duen Hitzarmen Ekonomikoaz gain, ez dugu aurkituko bere sustraiak tradizio juridiko, politiko eta konstituzional batean dituen zerga sistemarik. Badaude egon zerga arloan berezitasunak dituzten zenbait lurralde, baina ez dago Kontzertu Ekonomikoaren parekoa den figurarik.

Bilaketa horretan, lehenik eta behin Espainiako zerga eraentza aniztasunean murgilduko gara, eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa eta estatuan zerga arloan berezitasunak dituzten Ceuta eta Melilla eta Kanariar Uharteen kasuak aztertuko ditugu.

Europar eta munduan ere Kontzertu Ekonomikoari parekatu ahal zaion figurarik topatu ez dugunez, Europar Batasuneko estatu kide den Alemaniaren zerga eraentzari ematen zaion trataera aztertuko dugu, egitura lurraldetar deszentralizatua duen heinean, gure sistemarekin konparatze aldera.

Behin ondorioztatuta Kontzertu Ekonomikoaren erakundea munduan bakartzat jo genezakeela, ulergarria da gai gatazkatsua izatea. Gatazka horiek gainera Europar Batasuneko Justizia Auzitegira iritsi dira, izan ere, Espainia Europar Batasunean sartu zenean arazoak bikoiztu ziren. Ordura arte alde biko harremana zen horretan, beste subjektu bat sartu zen, hori dela eta, Europar Batasuneko Zuzenbideari ere lotuta geratu ziren ordura arte Estatuaren eta Autonomia Erkidegoarenak soilik ziren harremanak. Ondorioz, Kontzertu Ekonomikoak Estatuko ordenamenduaren baheaz gain, Europar Batasuneko Zuzenbidearen bahea igaro beharko du, eta azken eremu honetan, Kontzertu Ekonomikoak sor ditzakeen abantaila ekonomiko eta fiskalek Autonomia Erkidegoen (eta bere hiritargoaren) arteko solidaritatea, berdintasuna edota merkatuaren batasunaren printzipioa urratu ditzaketenaren argudioa landu izan da. Ikusiko dugun moduan, Kontzertu Ekonomikoko zenbait xedapen Estatuko laguntza kalifikatu izan dituzte eta Europar Batasunaren arabera Kontzertuari legitimazioa aurreikusi zaion arte bide luzea izan du.

Kontzertu Ekonomikoak Europar izan duen ibilbide gatazkatsu luze hori hobeto ezagutzeko, jurisprudentzia aztertuko dugu. Lehenik eta behin, abiapuntutzat Auzitegi Gorenaren 2004ko abenduaren 9ko epaia aipatuko dugu, zeinak Kontzertu Ekonomikoak

aurreikusten zituen Elkartearen Gaietako Zerga oinarriak estatuko laguntza gisa kalifikatu zituen. Ondorioz, Kontzertuaren etorkizuna arriskuan ikusi zuten askok. Epai honek, ordura arte Espainiako Auzitegiek Kontzertu Ekonomikoarekiko izandako errespetuzko jarrerari amaiera eman zion, eta gainera, Kontzertuaren aurka egiteko, Europar Batasuneko Zuzenbidean oinarritu zen Auzitegia. Hala ere, Azoreetako kasua lantzen zuen EBJAko epai batek dena aldatu zuen, eta ikusiko dugun moduan, aipatutako epai horretan oinarrituz, EBJAko 2008ko irailaren 11ko epaiak 2004 urtean Auzitegi Gorenak adierazitakoa guztiz aldatu zuen.

Azkenik, Kontzertu Ekonomikoaren inguruko alderdi garrantzitsuenak aztertu ostean, ondorioztatuko dugu eremu guztietan Kontzertua guztiz legitimatuta dagoen tresna den heinean, bere etorkizuna bermatzea ezinbestekoa dela.

Lan honetan jarraituriko metodologiari dagokionez, Kontzertu Ekonomikoaren erakundeak Estatu mailan eta Europar Batasuneko ordenamenduaren barnean duen joskeraren auziaren analisia aburu izanik, egitatezko egoeretan gaiari konponbidea emateko bideak eskainiko dituen eredu metodologiko bati heldu zaio. Hortaz, Kontzertu Ekonomikoa Estatu mailan eta Europar Batasunaren mailan ulertzeak dakarren arazoa ikerlanaren objektu bezala zehazturik, Zuzenbidearen arloko iturri nagusiak izango dira erabiliko diren instrumentu nagusiak: araudia (hiru mailatan ekoitzita: Europar Batasunean, Estatuan eta Autonomia Erkidegoan), jurisprudentzia (Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak sortua eta baita Estatu mailako Auzitegiek) eta doktrina zientifikoa (bai estatu mailakoa eta baita nazioartekoa ere). Modu osagarrian, gaiak iritzi publikoan sorturiko interesa dela eta, prentsako erreferentzia batzuk kontuan izan dira ere. Guzti hau, finean, Kontzertu Ekonomikoaren ibilbidean planteatu diren argi-ilunak aurkeztu eta etorkizunerako bide berriak jorratzeko zutabeak jartzeko asmoarekin egiten da.

2. KONTZERTU EKONOMIKOAREN JATORRIA ETA TESTUINGURUAN JARTZEA

2.1 Abiapuntua

Kontzertu Ekonomikoa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Estatu Espainiarraren arteko zerga eta finantza arloko harremanak arautzen dituen tresna da, maiatzaren 23ko

12/2002 Legean arautzen dena. Lege honen bitartez, Estatuan aplikatzen den araudi komunitik ezberdintzen den sistema bat aplikatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan arlo honetan. Euskadi eta Gobernu Zentralaren arteko akordioaren fruitu da, hori dela eta, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiak beren lurralde eremuko zergak biltzeko eta arauketa fiskala burutzeko ahalmena dute. Alonso Arce autoreak dionarekin bat eginez, Kontzertua Autonomia Estatutuarekin batera, Euskal Herriko instituzioek autogobernua egikaritzea posible egiten duen zutabe nagusia dela esan genezake¹.

Planteamendu hau guztiz berritzailea izan zen. Alde batetik araudi propioa sortu zelako, zeinetan Estatuan aplikatzen zen sistema alde batera uzten zen Autonomia Erkidegoak zerga politika garatu zezan. Autonomia Estatutuan eta baita Kontzertu Ekonomikoaren Legean adierazten den moduan, Lurralde Historikoetako erakundeek beren lurralde eremuko zerga eraentza mantendu, zehaztu eta arautzeko eskumena dute. Bestalde, ekarpen sistema berri bat ezartzea suposatzen zuen, ordura arte inon indarrean ez zegoena, zeinetan Lurralde Historikoek beren lurralde eremuko zergak biltzen dituzten eta haiek erabakitzen duten zein diren ordaindu beharreko zergak eta hauen zenbatekoak, beti ere, lurralde hauek, urtero, hitzartutako kantitate baten bitartez (kupoa)² Estatuaren gastuei aurre egiteko ekarpenak egin behar dituzte, kontuan izanik Estatuak lurralde bakoitzean egin dituen gastuak.

Horrela, zerga boterea Espainian ez da bakarria, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontzertu Ekonomikoaz gain, Nafarroak ere hitzarmen bat duelako, bere zerga eraentza berezi egiten duena. Aipagarriak dira ere Kanariar uharteen eta Ceuta eta Melillaren kasuak, hauek ere arlo honetan zenbait berezitasun dituztelako.

2.2 Kontzertu Ekonomikoaren jaiotza eta 1876 urtera arteko ibilbidea

Asko dira Euskal Lurralde Historikoek eta Nafarroako Komunitate foralek zerga arloan duten autonomia maila altuaren zergatiagatik galdetzen dutenak, eta erantzuna argudio historikoetan topatzen dugu. Beraz, Kontzertu Ekonomikoaren jatorria foruetan

¹ ALONSO ARCE, Iñaki, *El Concierto Económico Vasco: La renovación de 2002, fuentes documentales*, Ad Concordiam, Bilbo, 2003, 15 orr.

² Euskadik Estatuari egiten dion ekarpenari kupo orokor deritzaio, eta hori, lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatzen du. Euskal Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen estatuaren karga guztiei dagokien kontribuzioa da kupoa.

aurkitzen dugun heinean, esan daiteke urruneko aurrekari historikoetan oinarritzen dela. Foruei dagokienez, iraganeko ohitura eta usadioen multzoa dira, hauek bildu eta Zuzenbidea eratzen dutelarik. Horrela, Foruek harreman eta egoera politiko, zibilak, familiarrak, militarrek...arautzen zituzten. Uriarte Santamarinak, Foruak definitzerako unean adierazten du: “*Cuando hablamos de los Fueros, nos referimos al conjunto de normas de carácter consuetudinario que se ponen por escrito en un proceso que, iniciado en Navarra y seguido por los otros territorios, se extiende a lo largo de la Baja Edad Media y Edad Moderna*”³. Beraz, ohituretan oinarria duten arau multzoak izango direla esan dezakegu.

Hori dela eta, Foruetan oinarrituz, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoak beren ogasun eta zerga sistema propioa zuten baita ere. Ondorioz, Erregeak lurralde bakoitzeko testu foraletan ezarritako tasak soilik kobratzen zituen, eta soilik Erregearen Ogasunaren pobrezia edo gabezia egoera baten aurrean Lurralde Historikoen Koroari dohaintza edo borondatezko zerbitzuak egiteko aukera izango zuten. XVII. mendetik aurrera, Lurralde Foralak beren zerga propioak zehazten hasi ziren, *arbitrioak*, horrela, lurralde bakoitzean zerga administrazio propio bat eratzen hasi zen, bakoitza bere Ogasunarekin.

Foruetan oinarritutako Euskal Lurraldeen eta Koroaren arteko harremanak denbora luzez iraun zuen eta urte hauetan zehar haien arteko harremana baketsua izan zela esan daiteke. Horrela, Oinordetza Gerra eman zenean, Felipe V.ak Planta Berriko Dekretuaren bitartez, Valentzia, Aragoi, Mallorca eta Kataluniako autonomia politikoa indargabetu zuen, hauek bere aurkaria zenari emandako bultzada eta babesagatik. Hala ere, Euskal Lurraldeak eta Nafarroako Erreinua Felipe V.aren alde agertu zirenez, honek, bertako autonomia mantendu zuen, hori dela eta bertako sistema fiskal bereziak indarrean jarraitu zuten⁴.

Hala ere, Foruen jarraipena arriskuan ikusi zen, izan ere Europa osoan zehar eta batez ere Espainian berdintasun politiko eta juridiko baten alde egin zen, Estatu kohesionatu eta sendo baten bila. Berdintasun hori lortu nahian, saiatu ziren Euskal Lurraldetako eta Nafarroako zerga erregimena Koroako gainerako lurraldeek zutenarekin

³ URIARTE SANTAMARIA , Pedro Luis, “Nuestro Concierto Economico; claves para entenderlo”, 2016ko otsailaren 28koa, 71. Orr (www.elconciertoeconomico.com).

⁴ MONREAL ZIA, Gregorio, “El Concierto Economico: génesis y evolución histórica”, *Iura Vasconiae aldizkaria*, 6 zkia, 2009ko ekaina, 647-708. Orr.

parekatzen, eta Monarkiak ere euskal foraltasunaren aurka zenbait ekimen martxan jarri zituen. Hala ere, XIX mende amaierara arte Foruak ez ziren era larri batean arriskuan egon.

Lehenik eta behin, aipagarria da 1812an eman zen Cadizeko Konstituzioa⁵. Honek, Monarkia barnean zeuden erregimen bereziak ez zituen kontuan hartu. Hala ere, lege honen indarraldia oso laburra izan zen, 1814an Fernando VII.ak tronua eskuratu zuenean Konstituzioa indargabetu zuelako, ondorioz, erregimen konstituzional eta demokratikoa ezartzeko saiakera hori gainditu zuten ere euskal probintzietako foru sistemek.

Foruen amaieraren hasiera Gerra Karlistekin batera iritsi zen. 1833 urtean Fernando VII. hil zenean hasi ziren arazoak. Honen oinorde nor izango zen auzi gatazkatsua izan zen, alde batetik bere anaia Karlos zegoen, eta bestetik, bere alaba Isabel II. Horrela, bi alderdi eratu ziren, Karlosen alde absolutistak egongo ziren, hauek, foruen desagerpenaren aurka zeuden, eta bestetik, Isabelen alde liberalak egongo ziren. 1839an Karlistak garaituak izan ziren, hala ere, Bergarako Hitzarmenaren ondorioz, 1839ko urriaren 25eko Legean Foruen izatea onartu zen⁶. Ondorioz, zenbait eskubide foral deuseztatu ziren baina beste batzuk ez. Arazoa Konstituzioa eta Foruen arteko bateragarritasunean egongo zen, baina zerga arloan ez zen arazorik egon eta ordura arte Euskal Lurraldeek eta Nafarroak zuten zerga sistema bereziak indarrean jarraitu zuen.

Hurrengo urteetan, Lurralde Historikoak zenbait eskubide galtzen hasi ziren. Lurralde hauek Estatuko beste lurraldeekiko parekatzeko saiakera hartan, Nafarroan Lege Hitzartua eman zen 1841 urtean, honen bitartez, Nafarroa Gobernuarekin akordio batera

⁵ Konstituzio honek, izaera liberal eta progresista izan zuen, ondorioz, espainiar guztientzat berdintasuna ezarri nahi izan zer arlo guztietan, zerga arloan ere bai. Hori dela eta, ez ziren kontuan hartu Lurralde Historikoek zituzten Foru arauak.

⁶ 1839ko urriaren 25eko Legeko Ingo artikulua adierazten zuen :“*Se confirman los Fueros de las provincias Vascongadas y de Navarra, sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía*”. 2. Artikulua: “*El Gobierno tan pronto como la oportunidad lo permita, y oyendo antes a las provincias Vascongadas y a Navarra, propondrá a las Cortes la modificación indispensable que en los mencionado Fueros reclama interes de las mismas, conciliandolo con el general de la Nación y de la Consititucion de la Monarquía, resolviendo entre tanto provisionalmente, y en la forma y sentido expresados, las dudas y dificultades que puedan ofrecerse, dando de ella cuenta a las Cortes*”.

heldu zen, baina bertako zenbait pribilegio foral galdu zituzten. Euskal Lurraldeek berriz, Foruak arriskuan jartzen zituen akordiorik ez zuten onartu⁷.

Hala ere, ondorengo urteetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak beren foru eskubideak arriskuan ikusi zituzten, 1841eko azaroaren 29ko Dekretu bidez esaterako, foruak partzialki deuseztatu ziren eta salbuespen militarrek eta zerga berezitasunek soilik bizirik iraun zuten. Hala ere, 1872an berriro ere Gerra Karlista lehertu zenean geratu ziren hauek benetan arriskuan.

2.3 Kontzertu Ekonomikoaren eraentza 1876 urtetik sistema politiko frankistaren eraketara arte

Bigarren Gerra Karlista, liberalen garaipenarekin amaitu zen, horrela, batasun Konstituzionala lortu nahian, Gobernuko Presidente Canovas del Castillo zen garaian Foruak indargabetu zituen Legea eman zen, 1876ko uztailaren 21ean. Lege honen lehenengo artikulua adierazten zuen moduan: *“Los deberes que la Constitucion política ha impuesto siempre a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama, y de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del Estado, se extenderán, como los derechos constitucionales se extienden, a los habitantes de las provincias de Vizcaya, Guipuzkoa y Alava, del mismo modo que a los de las demás de la Nacion”*⁸. Ondorioz, Euskal Lurraldeek ordura arte izandako salbuespen horiek galdu zituzten. Planteamendu honek aplikazio arazo larriak sortu zituen hasieratik, ez baitzen erraza izan Estatuko ogasun sistema lurralde hauetan ezartzea, eta Diputazioek gainera aurka egin zioten neurri horri.

1877an Diputazio Foralak Diputazio Probintzial bihurtu zituen Canovasek, baina hauen egitura administratiboa ez zen nahikoa izan zerga bilketak burutzeko. Egun batetik bestera zergen bilketaren egitura aldatzea ez zen bideragarria. Hori dela eta, akordio batera heldu ziren lurralde hauek eta Estatua. Akordio hau 1878ko otsailaren 23an burutu zen eta 1878ko otsailaren 28ko Dekretu bidez eragina sortzen hasi zen, orduan eman zitzaion hasiera Kontzertu Ekonomikoaren bizitzari⁹.

⁷ ALONSO ARCE, Iñaki, *Derecho de la Union Europea y Concierto Economico: principios vertebradores de la autonomía tributaria foral en el marco de la Union Europea*, IVAP, Oñati, 2016.

⁸ 1876ko uztailaren 21eko Legea, Foruak indargabetzen dituena.

⁹ SERRANO-GAZTELUURRUTIA, Susana, *El Concierto Economico Vasco ante el Juez Comunitario*, IVAP, Oñati, 2012, 109-122. Orr.

Alonso Olea autorearen hitzetan, Canovasek neurri hau hartzea zenbait arrazoi ezberdinetan aurkitzen dugu:

“Hay varios motivos que explican por que Canovas no hizo directamente tabla rasa con todo lo foral y uno como decimos fue que no quiso sembrar las semillas para otra guerra carlista, pero también es cierto que importantes elementos liberales vascos habían apoyado a Alfonso XII y con las armas en la mano, por lo que, en cierta forma había que reconocer esos esfuerzos. Hay además otras razones mas operativas, la primera, la propia forma de recaudar los tributos en elmomento, que requerían una administración que el Estado no tenia dispuesta en el país, y que además de ser establecida requeria recursos que el Ministerio no disponía en abundancia. Funcionarios, estadísticas, locales, etc. En un país con fama de pobre, apartado y poco poblado y recién salido de una guerra”¹⁰.

Kontzertu Ekonomikoa behin-behineko neurri gisa jaio zen, Euskal Lurraldeetan eraentza komuna ezartzeko zubi gisa. Hala ere, honek gero eta indar handiagoa hartu zuen, itundutako zergak gero eta gehiago izaten hasi zirelarik eta lurralde hauetako Diputazioek arlo ekonomiko eta administratiboan gero eta eskumen gehiago izaten hasi zirelarik.

Kontzertu Ekonomikoaren erreformak egin ziren, eta sistema hau finkatzen joan zen. Hala ere, Gerra Zibila amaitu zenean, Kontzertu Ekonomikoa indargabetu zen Gipuzkoa eta Bizkaian, lurralde hauek alderdi frankistari sostengua eman ez izanagatik ezarritako errepresalia gisa. Hala ere, Araban mantendu zen, bertan altxamendu frankistak laguntza jaso zuela arrazoituz. Egoera hau mantenduko da sistema politiko frankistak bizirik iraun zuen epealdi osoan.

2.4 Kontzertu Ekonomikoaren berraktibatzea eta indarrean dagoen eraentza juridikoa

¹⁰ ALONSO OLEA, Eduardo J, “El Concierto Economico: Origen, historia y evolución, 1878-1980”, EEAA, *El Concierto Economico ayer, hoy y mañana*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 2014, 21-48 Orr.

1975ean Francoren heriotzaren ondorioz, trantsizioari hasiera eman zitzaion, eta demokrazia ezarri zen. Honek, Kontzertu Ekonomikoarentzat hasiera berri bat ekarri zuen, 1978ko Konstituzioa eta 1979ko Autonomia Estatutua onartu ondoren, Kontzertu Ekonomiko berria onartu zelako berriro hiru Lurralde Historikoentzat. Horrela, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bitartez Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontzertu Ekonomikoa onartu zen, 20 urteko indarraldiarekin.

Aipatu dugun moduan, Kontzertu Ekonomikoa jaio zenetik behin eta berriz aldaketak jasan ditu. Gaur egun indarrean dagoena, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen¹¹ bitartez onarturikoa da, eta honek zenbait berrikuntza edo aldaketa barneratu zituen, hala ere, aipagarriena indarraldia zehazten ez dela da. Beraz, esan dezakegu, Kontzertu Ekonomikoa gero eta finkoagoa den sistema bat dela.

Kontzertu Ekonomikoa onartzen duen Legeaz gain, ezin dugu ahaztu Kupo Legea. Gaur egun indarrean dagoena, abenduaren 28ko 11/2017 Legea¹² da, honen bitartez 2017-2021 bosturtekorako kupo zehazteko metodologia onartzen da. Lege honen bitartez Euskal Autonomia Erkidegoek Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoak zehazten dira.

Aipatutako bi Legeak dira Kontzertu Ekonomikoa arautzen duten bi Lege nagusiak. Hala ere, Kontzertu Ekonomikoaren eraentzaz mintzatzean, ezin dugu ahaztu otsailaren 19ko 1/2010 Lege Organikoaren erreformak¹³ ekarri zuen arau foralen blindatzea. Geroztik, zerga arloko arau foralak soilik Auzitegi Konstituzionalaren aurrean aurkaratu daitezke. Erreforma honen bitartez, alde batetik, Auzitegi Konstituzionaleko Lege Organikoari Bosgarren Xedapen Gehigarri bat gehitu zitzaion, zeinetan adierazten den Auzitegi Konstituzionalari dagokiola Lurralde Historikoetako zerga arau foralen aurkako ezagutza, eta eskuduntza hau kendu zitzaion Auzitegi Administratiboei, eta bestetik, foraltasunaren autonomiaren babeserako prozedura berri bat aurreikusi zen¹⁴. Horrela, zerga arloko arau fiskalei babes berezia eman zitzaion, Auzitegiak, ulertzen zuelako nahiz eta arau foralek erregelamendu izaera izan, berezitasunak dituztela,

¹¹ Maiatzaren 23ko 12/2002 Legea, zeinaren bitartez EAE-ko Kontzertu Ekonomikoa onartzen den.

¹² Abenduaren 28ko 11/2017 Legea, zeinaren bidez 2017-2021 bosturtekorako kupoaren zehaztapenerako metodologia onartzen den.

¹³ Otsailaren 19ko 1/2010 Lege Organikoa, zeinaren bidez Auzitegi Konstituzionalaren eta Botere Judizialaren Lege organikoak aldatzen diren.

¹⁴ DIEZ PICAZO, Luis Maria, "Notas sobre el blindaje de las normas forales fiscales", *InDret aldizkaria*, 3 zkia, 2010eko uztaila.

Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarrian aurreikusten den moduan, arau hauek Lurralde Historikoetan zerga arloko Estatuko arauak ordezkatzeko dituztelako¹⁵. Blindatze honen helburua, Kontzertu Ekonomikoak jasan izan duen auziperatzea eragoztekoa izan da. Aldaketa hau eman zen arte, zerga arloko arau foralak jurisdikzio arruntean aurkaratzeko aukera zegoen, ondorioz, kaltetutako partikularrek edota Autonomia Erkidegoek arau horiek auziperatzeko aukera zuten. Erreforma honen ostean berriz, Auzitegi Konstituzionalaren esku geratu zen zerga arloko arau foralen kontrola, hauek aurkaratzeko legitimazioa murriztu zelarik¹⁶.

Erreformaren aurka, Errioxako eta Gaztela Leoneko Autonomia Erkidegoek konstituzio kontrakotasun helegiteak aurkeztu zituzten. Hauen ustetan, aldaketa horrek Konstituzioko zenbait xedapen urratzen zituen, zehazki, prozesu eraentza berri hori Konstituzioak aurreikusten zuen kontrol ereduaren aurkakoa zela argudiatzen zuten.

Horrela, 2016ko ekainaren 23ko ebazpenaren¹⁷ bitartez, Auzitegi Konstituzionalak arau foralak blindatu zituen erreforma berretsi zuen. Hala ere, Auzitegiak zehaztapen batzuk egin zituen. Lehenik eta behin, argitu zuen Auzitegi Konstituzionalean soilik zerga arloko arau fiskalak zirela aurkaragarriak, eta gainontzekoak jurisdikzio arruntaren eskumen izaten jarraituko zutela. Horretaz gain, zerga arloko arauak, Estatuaren eta Lurralde Historikoen arteko eskumen banaketa arautzen duten legeak urratzen dituztenean soilik izango da Auzitegi Konstituzionala eskuduna auzi horiek ezagutzeko. Gainontzeko urrapenak, esaterako, nazioarteko zuzenbidea urratzen denean, auzitegi arruntak izango dira eskuduntza izaten jarraituko dutenak. Hori dela eta, Auzitegi Konstituzionalak argi uzten du zerga arloko arau foralen kontrolaren banaketa. Bestetik, Foraltasunaren autonomiaren babeserako aurreikusitako prozeduraren inguruan, Auzitegiak argudiatu zuen hau ez zela Estatuko Legeak aurkaratzeko tresna¹⁸. Lurralde Historikoek beren helegiteak soilik estatuko legegilearen

¹⁵ DUQUE VILLANUEVA, Juan Carlos, “Los procesos constitucionales de control de las normas forales fiscales vascas”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 90 zkia, 2010eko iraila, 29-71 Orr.

¹⁶ PASCUAL MEDRANO, Amelia, “Diversidad y efecto frontera: el blindaje del Concierto Economico Vasco”, LOPEZ BASAGUREN, Alberto eta ESCAJEDO SAN EPIFANIO, Leire, *Los caminos del federalismo y los horizontes del estado autonómico*, IVAP, Bilbo, 2014, 1533-1541 Orr.

¹⁷ AK-ren 2016ko ekainaren 23ko ebazpena, zeinaren bidez zerga arloko arau foralen blindatzea berresten den.

¹⁸ TAJADURA TEJADA, Javier, “El Tribunal Constitucional como defensor de la foralidad: comentario de la STC 118/2016, de 23 de junio, sobre el nuevo régimen impugnatorio de las Normas Forales Fiscales”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 114 zkia, 2018, 237-269 Orr.

zerga arloko arau foralen aplikazio ezan oinarritu ditzaketelako. Beraz, gaur egun oraindik ere, zerga arloko arau foralak juridikoki blindatuak daude, hau da, Kontzertu Ekonomikoa juridikoki blindatua dagoela esan dezakegu¹⁹.

3. KONTZERTU EKONOMIKOAREN ANALISI JURIDIKOA

Lehenago aipatu dugun moduan, Kontzertu Ekonomikoak zerga arloan Estatuan aplikatzen ez den beste araudi ezberdin bat aplikatzea eragiten du. EAE-n ematen den ezberdintasun honek eragin izan du bere jatorritik zenbaitek Kontzertua abantaila gisa kalifikatzea, Estatuaren batasuna urratzen duen neurri gisa. Honek jasan dituen eraso eta kritiketan sartu gabe, jarraian, Kontzertuaren funtsa eta legitimazioa aztertuko ditugu, bi hauek bere etorkizuna bermatzeko argudio nagusiak izango baitira.

3.1 Kontzertu Ekonomikoaren funtsa

Fundamentatzea zerbait oinarritzea da, hau da, puntu honetan aztertuko dugu zein zimenduren ganean oinarritzen eta garatzen den Kontzertu Ekonomikoa. Aurreko puntuan, Kontzertu Ekonomikoaren bilakaera historikoa landu dugunean aipatu dugun moduan, Kontzertua Foraltasunaren jarraipena da. Serrano-Gazteluurrutiaren hitzekin bat, Kontzertu Ekonomikoak bere izatearen arrazoia Eskubide Historikoetan du, hau da, Foru zaharren ondorengoetan. Azken hauek, antzinako euskal autogobernua eratzen zuten²⁰.

Gaur egun, Kontzertu Ekonomikoaren oinarri juridikoa, Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarriarekin lotuta dago, zeinak aurreikusten duen Konstituzioak Lurralde Foralen eskubide historikoak errespetatzen dituela. Horrela, adierazten da Kontzertua Eskubide Historikoetan oinarritzen dela, eta Eskubide horiek Espainiako Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarriak babesten dituela Konstituzioko 2. Artikuluak eta VIII. Tituluan aurreikusten dena kontuan hartuz.²¹

¹⁹ ARMENTIA BASTERRA, Javier, "Concierto Economico: algunas consideraciones generales", *Quincena fiscal*, 19 zkia, 2017ko azaroa, 21. Orr.

²⁰ SERRANO GAZTELUURRUTIA, Susana, *El Concierto Economico Vasco ante el juez comunitario*, IVAP, Bilbo, 2012

²¹ Ibidem

Kontzertu Ekonomikoaren oinarria Eskubide Historikoetan aurkitzen dugu beraz, eta era berean, hauek Konstituzioak babestu egiten ditu. Hala ere, Konstituzioan ez da argitzen zehazki zein den Eskubide Historiko horien edukia, hau, jurisprudentziak zehaztu izan du, eta adierazi izan da Konstituzioak Eskubide Historikoak aipatzen dituenean erreferentzia egiten zaiola Institutio Foralek era iraunkor batean egikaritzen duten eta Estatuak aitortzen duen eskuduntza eduki bati²².

3.2 Kontzertu Ekonomikoaren legitimazioa

Bestalde, zerbait legezkotuta egotea, inguruabar edo egitate batekiko legeko izaera izatea izango da, baliozkoa izatea. Kasu honetan, aztertuko dugu ea Kontzertu Ekonomikoa Espainiako ordenamendu juridikoarekiko eta gizartearekiko bateragarria den, eta ondorioz, bere legitimazioaren indarra norainokoa den.

Uriarte Santamarinari Kontzertu Ekonomikoaren legitimazio iturriez galdetzean, honek adierazi izan du hau ez dela euskaldunen asmakizuna, Gorte Orokorretatik Kontzertua aipatzen duten 16 lege igaro baitira 1981 urtetik 2014 urtera, eta gainera, argudiatzen du Kontzertuaren aldatetek sostengu izugarria jaso dutela. Honek dionaren arabera, Kontzertuak legitimazio formal eta legal izugarria du, eta baita morala ere diktadura frankistan jasan zuen ezabapenaren ostean. Hori dela eta, ez da ulertzen babes konstituzionala, morala...duen zerbait hain kritikatu izatea²³.

Legitimazio historikoari dagokionez, Kontzertuaren bilakaera historikoa aztertzean aipatu dugun moduan, Kontzertua Euskal Foruen ondorengoa da, euskal lurraldeek bizi izandako inguruabar berezien ondorioz ezarritako neurria da. Hau da, Kontzertu Ekonomikoa urrun urruneko aurrekari historikoetan oinarritzen da eta ez hori bakarrik, izan ere, zenbatezinak diren oztopoak gainditu ditu, gerrak, diktadura, erregimen politiko ezberdinak...hori dela eta, ezin da ukatu bere legitimazio historikoa.

²² AKren 1990eko irailaren 20ko epaia, 140/1990: En el conflicto positivo de competencia registrado con el núm. 192/85, promovido por el Abogado del Estado en representación del Gobierno de la Nación frente al Gobierno de Navarra, en reclamación con el Decreto 236/1984, de 21 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento para la Elección de Organos de Representación de los Funcionarios de las Administraciones Públicas de Navarra.

²³ ELORDUY, Itxaso, "Entrevista a Pedro Luis Uriarte", *InfoLibre*, 2015eko azaroaren 26koa.

Auzitegiek aitortu dute ere Kontzertuaren legitimazio edo jatorri historikoa, Auzitegi Konstituzionalak aurreikusi izan du, esaterako 2016ko ekainaren 23ko 118/2016 epaian:

“Con la expresión territorios forales recogida en la disposición adicional primera del texto constitucional se hace referencia a aquellos territorios integrantes de la monarquía española que, pese a la unificación del Derecho público, mantuvieron sus propios fueros. De esta manera, una de las peculiaridades que han tenido las provincias vascas a lo largo de la historia, y por tanto, uno de los derechos históricos que la disposición adicional primera ampara y respeta, aunque como no podía ser de otra manera, de forma actualizada en el marco de la Constitución y de los Estatutos de Autonomía, pues el texto constitucional imposibilita el mantenimiento de situaciones jurídicas que resulten incompatibles con los mandatos y principios constitucionales, es lo que se ha conocido como el régimen de concierto económico, que se integra en el núcleo del régimen foral, y que se caracteriza por la existencia de un régimen fiscal propio, que no hace sino salvaguardar determinadas peculiaridades de su autogobierno territorial o de su foralidad”²⁴.

Horrela, Auzitegi Konstituzionalak onartzen du Kontzertua Euskal Probintziek historian zehar izandako berezitasunen ondorengoa dela, eta berezitasun horiek dira Konstituzioak babesten dituenak, betiere neurri horiek Konstituzioak aurreikusten dituen printzipioak errespetatzen dituen heinean. Ondoriozta dezakegu beraz, historikoki legezkoak dagoela Kontzertua, aztertu dugun moduan, iraganean izandakoaren eta bizitakoaren isla delako.

Bada, bigarren legitimazio molde bat ere. Izan ere, Kontzertua moralki legitimatuta dago ere. Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoek gozaten duten Kontzertua, iraganean euskal probintziei eragindako kalte morala berdintzeko adierazpena da. Dakigun moduan, 1876an, Foruak indargabetu zituen Legea onartu zen. Bigarren Gerra Karlista liberalek garaitu ostean eman zen lege hau, euskal lurraldeek aurkariei emandako babesa zigortzeko neurri gisa. Hala ere, ordura arte euskal

²⁴ AKren 2016ko ekainaren 23ko epaia, 118/2016.

probintzietan estatu espainiarraren presentzia oso urria zenez, zaila izan zen erregimen komuna bertan aplikatzea, eta hartutako neurria euskal lurraldetara egokitu beharra zegoenez, Foruak ezabatzearen konpentsazio moral gisa Kontzertu Ekonomikoa eman zen.

Horretaz gain, Frankoren diktaduraren garaian, 1937ko uztailaren 23ko Lege Dekretu bidez, Bizkaia eta Gipuzkoaren Kontzertu Ekonomikoak ezabatu egin ziren. Lege horretan adierazten zen:

“Olvidando muchísimos de los favorecidos por el Concierto esta prodigalidad que les dispense el Poder publico, se alzaron en armas en Guipuzcoa y Vizcaya contra el Movimiento Nacional, correspondiendo así con la traición a aquella generosidad excepcional. No es, pues, admisible que subsista ese privilegio sin agravio para las restantes regiones que, con entusiasmo y sacrificio sin limite, cooperan desde un principio al triunfo del Ejército”²⁵.

Lege honen zigor izaera garbi ikusten da, nazioari traizio egin zioten probintziak zigortu ziren eta. Franko Jeneralaren erabakiak ondorio larriak izan zituen, izan ere, Kontzertua euskal ekonomiaren %4arentzat eta biztanleriaren %12arentzat mantendu zelako bizirik.

Bigarren zigor gogor honek, Frankoren heriotza eman zen arte iraun zuen, horrela, 1976an urriaren 30eko 20/1976 Lege Dekretu bitartez zigor horren konpentsazio morala eman zen. Hala ere, konpentsazio materiala ez zen lortu 1981 urtera arte, Konstituzioa eta Autonomia Estatutua onartu ostean, Kontzertu Ekonomiko berria indarrean sartu zen arte. Orduan lortu zen Francisco Franko diktadoreak burututako ekintza onartezinaren konpentsazio moral eta materiala.

Legitimazio historiko eta moralaz gain, Kontzertu Ekonomikoak Konstituzioaren babesa jasotzen du ere. Espainiar Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarriak dio Konstituzioak lurralde foralek dituzten eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dituela, eta gainera, eraentza foralaren eguneratze orokorra Konstituzioak eta Autonomia

²⁵ 1937ko uztailaren 23ko Lege Dekretua, zeinaren bidez Bizkaia eta Gipuzkoarentzat Kontzertu Ekonomikoa deuseztatzen den.

Estatutuetan adierazten denarekin bat egin beharko dela adierazten da²⁶. Aurrekoak, suposatzen du Foru Lurraldeek Konstituzioko VIII. Tituluan aurreikusten diren eskumen ezberdinak izango dituztela, betiere hauek Konstituzioko printzipioekin bat datozen heinean. Xedapen honek, foraltasunaren instituzioaren bermea suposatzen du, eta horren barnean kokatzen da Kontzertu Ekonomikoa, nahiz eta Konstituzioan hau espresuki ez den aipatzen.

Horrela, Espainiar Konstituzioak Eskubide Historikoei ematen zien babesa aprobetxatuz, Autonomia Estatutua burutzeko aukera heldu zen. Konstituzioak ez zion Kontzertuari aipamenik egiten, baina Euskal Herriko zenbait alderdi politikok irizten zuten Kontzertua zela Eskubide Historiko garrantzitsu eta esanguratsua.

Autonomia Estatutua 1979ko azaroaren 29an onartu zen erreferendum bidez. Hori dela eta, Kontzertu Ekonomikoa erreferendum bidez onartutako neurria dela esan daiteke, honek Euskal Autonomia Estatutuaren edukia osatzen zuen eta. Beraz, Kontzertu Ekonomikoa Autonomia Estatutuak legitimatzen du ere²⁷.

Lehenik eta behin, Autonomia Estatutuko 40. Artikuluan adierazten da Euskal Herriak Ogasun Autonomo propio bat izango duela bere eskumenen egikaritza eta finantziazio egokirako²⁸. Artikulu honetan, Euskadiren gaitasun autonomikoak aitortzen dira Ogasun arloan. Horrela, hurrengo artikuluko lehenengo atalean baieztatzen da zerga arloko Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko harremanak foru sistema tradizionalako Kontzertu Ekonomiko edo Hitzarmen bidez arautuko direla²⁹.

Bestalde, Autonomia Estatutuko Lehenengo Xedapen Gehigarrian adierazten da ere: *“La aceptación del régimen de autonomía que se establece en el presente Estatuto no implica la renuncia del Pueblo Vasco a los derechos que como tal le hubieran podido corresponder en virtud de su historia, que podrán ser actualizados de acuerdo con lo que establezca el ordenamiento jurídico”*³⁰. Estatutuak beraz, argi uzten du ere eskubide

²⁶ 1978ko urriaren 31ko Espainiako Konstituzioa, Lehenengo Xedapen Gehigarria.

²⁷ URIARTE SANTAMARINA, Pedro Luis, “El Concierto Economico Vasco: una visión personal”, 2015eko urriaren 31koa, (www.elconciertoeconomico.com)

²⁸ Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriko Autonomia Estatutua, 40. Artikulua.

²⁹ Ibidem, Artikulua: “Las relaciones de orden tributario entre el Estado y el País Vasco vendrán reguladas mediante el sistema foral tradicional de Concierto Economico o Convenios”.

³⁰ Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriko Autonomia Estatutua, Lehenengo Xedapen Gehigarria.

historikoak aurreikusten eta aitortzen direla, eta haien artean, Kontzertu Ekonomikoaren garrantzia berezia azpimarratzen da. Beraz, Kontzertuak legitimazio estatutarikoa duela ezin da ukatu.

Kontzertu Ekonomikoa lantzen hasi garenean aipatu dugu aurten 141 urte beteko dituela. Honek, bere legitimazio politikoa frogatzen du, izan ere, ezberdina, bereizgarria eta munduan bakarra den figura batek indarrean hainbeste urte irauteak esan nahi du bizi izan diren etapa politiko guztiak gainditu dituela, ondorioz, etapa politiko hauen babesak jaso duela era batean edo bestean. Azken finean, Kontzertua onartua izan da kontestu erabat desberdinetan; Monarkia liberalean, diktaduran, errepublikan edota monarkia parlamentarioan. Trantsizio garaitik Kontzertua iraunkorra izan da, beraz, bere legitimazio politikoa baieztatu dezakegu.

Kontzertuaren legitimazioaz mintzatzean, ezin dugu ahaztu honek duen legitimazio soziala. Kontzertuak, pertsonen, enpresen, unibertsitateen...babesa jasotzen du. Babes hau Eusko Legebiltzarrean islatzen da, non gehiengoa azaltzen den Kontzertu Ekonomikoaren alde. Kontzertuaren aurkari gehienak Euskal Probintzietatik kanpo topatzen ditugu.

Kontzertuak jasotzen duen babes sozial horrek lotura du honek duen legitimazio ekonomikoarekin, izan ere, ekonomikoki emaitza onak eragiteak kontzertuaren aldeko joera bultzatuko du. Euskal Autonomia Erkidegoak, gainerako Autonomia Erkidegoek baino *rating*³¹ handiagoa du, beraz, begi bistakoak dira honek dituen emaitza onak.

Azkenik, puntu honekin amaitzeko legitimazio judizialari aipamen egingo diogu. Ikusi dugun moduan, Kontzertua iturri askok legitimatzen dute. Arlo zalantzarriena judiziala izango da, izan ere, denbora asko igaro behar izan da Auzitegiek Kontzertua legitimatu duten arte³². Aipatu dugun bezala, Kontzertu Ekonomikoa figura bakarra eta berezia izateak arlo honetan gatazkak eragin ditzake, gainera ez dira gutxi neurri edo figura honek izan dituen etsaiak, hori dela eta bide luzea izan du bai Estatuko Auzitegietan eta baita ere ondorengo puntuetan ikusiko dugun moduan, Europako Auzitegietan.

³¹ Rating-a da Autonomia Erkidego batek bere zorrari aurre egiteko duen gaitasunaren adierazlea.

³² URIARTE SANTAMARIA, Pedro Luis, "El Concierto Economico Vasco: una visión personal", 2015eko urriaren 31koa, (www.elconciertoeconomico.com)

4. KONTZERTU EKONOMIKOAREN FUNDAMENTAZIOA: ZERGA ANIZTASUNAREN ONARPENA

Kontzertu Ekonomikoak zerga erregimen propio bat izatea suposatzen du, erregimen komunitik bereizten dena. Ideia hau ez da berria, izan ere, Estatu batean zerga arloan aniztasuna egotea ohikoa delako, baina ez dugu aurkitzen Kontzertu Ekonomikoa bezala foraltasunean oinarritzen den zerga sistema berezirik.

Estatuek duten formaren arabera, bi multzo nagusitan sailkatzen dira, horrela, alde batetik estatu unitarioak egongo dira, Frantzia edo Portugal, esaterako. Hauetan, boterea entitate batek soilik gobernatzen du, gobernu zentrala erakunde nagusia da. Batasun lurraldetarra, judiziala eta legegilea egotea da ezaugarri nagusia, hori dela eta barne administrazioak ez ditu botere propioak izango. Bestalde, estatu federalak daude, hauetan, boterea deszentralizatua dago, hau da, boterea banatuta dago gobernu zentralaren eta gobernu lokal, erregional edo estatalen artean, azken hauek botere zentralaren menpe egongo direlarik. Azken batean, Konstituzio federala errespetatu behar dute, bertan aurreikusten da eta instituzio zentral eta territorialen arteko eskumen banaketa. Estatu federalen adibide da esaterako, Alemania. Azken estatu mota hauetan boterea deszentralizatua dagoen heinean, ohikoa da Estatu barnean deszentralizazio fiskala ematea³³.

Munduan estatu federal anitz dauden arren, ez dago eredu bakar bat zerga arloa arautzen duenik kasu hauetan Hori dela eta, herrialde federalen zerga sistemak guztiz ezberdinak dira haien artean, eta Uriarte Santamarinak dionarekin bat eginez, munduko herrialde federal garrantzitsuenen (Alemania, Australia, Austria, Canada, Estatu Batuak eta Suiza) zerga ereduak haien artean guztiz ezberdinak izatea, Kontzertuarentzat berri ona da, bere legitimitate kontzeptuala baieztatzen duelako³⁴.

4.1 Zerga eraentza aniztasuna Espainian

³³ Gai honen inguruan, ikus: ANDERSON, George, *Una introducción comparada al federalismo fiscal*, Marcial Pons, Ediciones Jurídicas y Sociales, Madril, 2010.

³⁴ URIARTE SANTAMARIA, Pedro Luis, “El Concierto Económico Vasco: una visión personal”, 2015eko urriaren 31koa, (www.elconciertoeconomico.com)

Espainiar Estatuari dagokionez, aipatu behar da Espainian 1978ko Konstituzioak planteatu zuela estatuko lurralde egitura berria. Horrela, Espainiar Estatuaren batasunaren alboan, Konstituzioko 2. artikulua Estatua osatzen duten nazionalitateen autonomia aurreikusten du³⁵. Espainiar Estatua autonomikoa den arren, antzekotasunak ditu Estatu federalarekin, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen artean banatzen direlako eskumenak. Hala ere, Estatu federal batetik ezberdintzen duena da subiranotasuna Estatuak soilik duela, hau da, subiranotasuna bakarra da.

Horrela, eta Konstituzioko VIII. Tituluan adierazten den bezala, Autonomia Erkidegoek beren interesak bilatuz, hauek kudeatzeko autonomia izango dute, eta horretarako, bakoitzak bere erakunde eta ordenamendua izango ditu. Hala ere, eskumen banaketa hori ez da berdina izango Autonomia Erkidego guztientzat. Lehenago ikusi dugun moduan, lurralde foralek dituzten eskubide historikoak direla eta, Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak zerga sistema ezberdinak izango dituzte³⁶.

Aipatu ditugun lurraldeek benetako autonomia fiskala izango dute, izan ere, bertan, zergen bilketa diputazio foralek burutzen dute eta ondoren hauek hitzartutako kantitate baten bitartez egingo diete aurre Administrazio zentralako gastuei. Erregimen Komuna aplikatzen den lurraldeei dagokienez berriz, Administrazio zentralak biltzen ditu zerga gehienak, eta gerora, hauen zati bat autonomiei transferituko die. Zenbait zerga zuzenean biltzeko ahalmena dute Autonomia Erkidego hauek, baina garrantzia gutxikoak dira.

Horretaz gain, bi sistemen arteko ezberdintasun garrantzitsuena autonomiarekin lotura duena da, izan ere, lurralde foralek beren eredu fiskala zehazteko eskumen osoa dute, Balio Erantsiaren Zerga izan ezik. Erregimen komunaren menpe dauden Autonomia Erkidegoek berriz, arlo fiskalean legeak emateko duten gaitasuna askoz murriztagoa da.

Federalismo fiskalean aditua den Marino Finozziari Espainia eta Federalismo fiskalaren arteko loturaz galdetzean, honek adierazi du Espainia herrialde

³⁵ 1978ko Espainiar Konstituzioko 2. Artikulua dio: *“La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la nación española, patria común e indivisible de todos los españoles y reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que la integran y la solidaridad entre todas ellas”*.

³⁶ GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA, Ricardo, “El Concierto Económico entre Euskadi y el Estado: radiografía de situación”, EEAA, *Federalismo fiscal y Concierto Económico*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 2016, 147-158 Orr.

aurreratuenetako bat dela. Sistema federala dela ulertzen du berak, batez ere eskualde autonomo eta Estatu zentralaren arteko akordioak kontuan hartzen badira. Hala ere, abiadura ezberdinetako federalismo bat ematen dela adierazten du, eremu batzuk erantzukizun berriak bere gain hartzeko prest daudelako, baino beste batzuk nahiago dute hauek Estatuaren esku geratzea³⁷. Beraz, Espainian federalismo fiskala ematen dela argi dago, arlo fiskalean autonomia ematen zaie Autonomia Erkidegoei, betiere kontuan hartuz bakoitzaren gaitasunak eta Estatu zentralarekin dituzten akordioak zein diren, horregatik adierazten du abiadura ezberdinetan ematen den federalismoa dela Espainian ematen dena.

Espainiako eredu deszentralizatuak ezaugarri berezi bat du, lurralde berean finantzaketarako bi eredu ezberdin daude eta. Hau, federalismo asimetriko gisa ezagutzen da, eta hori dela eta, Nafarroak eta Euskal Probintziek autonomia fiskal handiagoa izango dute. Beraz, bi zerga sistema bereizten dira, alde batetik, erregimen komuna egongo da, eta bestetik, erregimen forala, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzen dena. Hori dela eta, Espainian bost administrazio fiskal daude bizikidetzan; erregimen komunekoa, Nafarroakoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa eratzen duten hiru lurralde historikoetako. Horietaz gain, aipagarriak dira Kanariar uharteen eta Ceuta eta Melillaren kasuak. Jarraian ikusiko dugun moduan, lurralde hauetako zerga sistemak erregimen komuneko zerga sistematik alderdi batzuetan bereizten direlako.

4.2 Nafarroa

Esan bezala, Espainian, alde batetik era homogeen batean aplikatzen den zerga eraentza orokorra egongo da. Bestalde, eraentza berezi batzuk ere egongo dira, eta hauetako bat izango da Nafarroan aplikatzen dena.

Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren sorreran, abiapuntua 1841 urtean emandako Lege Hitzartuan koka dezakegu. Ordura arte Nafarroa Erreinu bat zen, bere erakunde propioak zituelarik. Horrela, 1841eko Legea eman zenean Nafarroak Erreinu izateari utzi behar izan zion eta Espainiako monarkia konstituzionalaren parte izatera pasa

³⁷ C. MARTINEZ, Isabel, "Entrevista a Marino Finozzi, Presidente de la Asamblea del Véneto", *El País*, 2008ko urriaren 4koa.

zen, nahiz eta eraentza berezi bat mantendu zuen, Nafarroako Foruetan oinarritutakoa. Hori dela eta, zerga eraentza berezi bat izaten jarraitu zuen ere.

Nafarroa probintzia bat gehiago izatera pasa zen, baina autonomia handia izaten jarraitu zuen. Aipatutako Legeak zenbait ondorio izan zituen, esaterako; Nafarroa eta Estatuaren artean zeuden aduanak desagertu ziren, Nafarroako Erreinu zaharra barne merkatuaren parte izatera pasa zen...Gainera, Erregeari ordura arte egiten zitzaizkion dohaintzak, borondatezko izatetik beharrezko izatera pasa ziren. Hori dela eta, Estatuari urtero egin beharreko ekarpena 1,8 milioi errealetan zehaztu zen³⁸.

Horrela sortu zen Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa. Geroztik, bost hitzarmen ezberdin hitzartu dira, eraentza forala une bakoitzeko inguruabar politiko eta sozioekonomikoetara egokitzeko asmoz. Gaur egun indarrean dagoena, 1990 urtean burututako hitzarmena da, abenduaren 26ko 28/1990 Legea. Lege honen iraunkortasuna zehaztugabea bada ere, bost urtetik behin eguneratzen dira Nafarroa eta Estatuaren arteko zerga harremanak.

Pentsa daiteke EAE-ko Kontzertu Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa fenomeno juridiko berdina direla, baino ez da horrela. Egia da biek oinarri juridikoa Espainiako Konstituzioko Lehenengo Xedapen Gehigarrian dutela. Baina eraentza bakoitzak bere aurreikuspena du, Kontzertu Ekonomikoa Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 41. Artikuluan aurreikusten den bitartean, Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa, LORAFNAko³⁹ 45. Artikuluan aurreikusten da. Gainera, bi sistemen oinarrian Foruak topatzen baditugu ere, hauen bilakaera historikoa ez da berdina izan. Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa akordio baten fruitu izan zen, izan ere, 1839ko Legea aplikatzeko akordio gisa jaio zen. Kontzertu Ekonomikoa berriz, Lege indargabetzaile baten aplikazioaren ondorio izan zen.

Bi eraentzen arteko beste ezberdintasun nabarmen bat iraunkortasunari dagokiona da. Hitzarmenari ez zitzaion inoiz epealdi zehatzik aurreikusi. Kontzertua bestalde, epe jakin baterako onartu zen. Desberdintasun honek eragin zuen Nafarroak aldaketak egin

³⁸ ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, *Los Convenios económicos entre Navarra y el Estado. De la soberanía a la autonomía armonizada*, Gobierno de Navarra, Iruña, 2010.

³⁹ Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Espainiako 13/1982 Lege Organikoa.

ahal izatea eperik kontuan hartu gabe. Gainera, Hitzarmenaren iraunkortasuna zehaztugabea izateak abantaila ekonomiko bat suposatu zuen, izan ere aldaketarik ez burutzeak ekarpen zifrak gero eta eguneratu gabe egotea zekarren.

Bestalde, Nafarroan zerga sistema aplikatzeko eta arautzeko eskuduna komunitate forala zen bitartean, Kontzertuaren kasuan botereak ez zaizkio Autonomia Erkidegoari esleitzen, baizik eta Lurralde Historiko bakoitzari, beraz, EAE-ko erakundeak ez dira izango eskudunak zerga sistema aplikatzeko eta arautzeko. Nahiz eta bertako instituzioek zenbait eskumen izan, esaterako, harmonizazio eta koordinazio eskumenak, zerga boterea Diputazio Foralek eta batzorde orokorrek izango dute. Ondorioz, Hitzarmen Ekonomikoaren inguruan onartzen eta aplikatzen diren arauak, lege maila izango dute, legeak emateko eskumena duen Nafarroako Parlamentuak ematen dituen heinean. Kontzertu Ekonomikoaren inguruko arauak berriz, erregelamendu maila dute, eta hori dela eta hauek Justizia Auzitegietan aurkaratzerako unean ere ezberdintasunak egongo dira⁴⁰.

EAE-ko Kontzertu Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoa gauza bera ez direla argi dago, baina antzekotasun nabarmenak dituzte. Esan daiteke, Kontzertuari gehien parekatzen zaion zerga eraentza dela, baina lurralde hauek duten egitura eta bizi izan dituzten inguruabarrak direla eta zenbait desberdintasun garrantzitsu dituztela ikusi dugu.

4.3 Kanariar uharteak

Arrazoi geografikoak direla eta, Kanariar uharteek erregimen komuna aplikatzen zaien beste Autonomia Erkidegoekiko zenbait ezberdintasun dituzte. Izan ere, hauei, Europar Batasunak eskualde ultraperiferikoei aurreikusten dien araudia aplikatzen zaie.

Hala ere, kontuan izan behar da, historikoki arlo honetan Kanariar uharteek trataera berezia jaso dutela Gaztelako Koroaren parte izan direnetik. Trataera berezi hori, XIX. Mendean Portu Franko kontsideratzera pasa zen, ondorioz, Kanariar uharteetan salgaien sarrera eta irteeretan liberalizazioa ezarri zen. Portu Frankoa izateak suposatzen

⁴⁰ SIMÓN ACOSTA, Eugenio Antonio, "Modelos singulares de financiación autonómica: el régimen foral", EEAA, *El sistema de financiación territorial en los modelos de estado español y alemán*, INAP, Madril, 2000, 222-226 Orr.

zuen bertako zerga eraentza, inportazio eta esportazioen merkataritza askatasunean, aduana frankizietan eta zerga lokalen izatean oinarritzen zela. Neurri hauekin, uhartetako ekonomia sustatu nahi zen. Trataera berezi hori garatzen joan zen eta Francoren diktaduraren garaian, 1972ko Kanariar Uhartetako Erregimen Ekonomiko eta Fiskalaren Legean islatu ziren Kanariar Uhartetako garapen ekonomiko eta soziala arautzeko neurriak. Beraz, trataera berezi hori historikoki legeztatua dagoela esan dezakegu⁴¹.

Bestalde, aipagarria da Espainia Europar Batasunera atxikitu zenean, Kanariar Uharteak ez zirela aduana eremu komunitarioan sartu, laguntza eta araudi komunitariotik aske geratu zirelarik. Honek eragin zuen Kanarietatik penintsulara sartzen ziren salgaien kostua garestitzea, azken batean salgai hauen ustiaketa ezinezko bihurtu zelarik, Kanariar Uhartetako produkzioaren merkatu nagusia Penintsula eta herrialde komunitarioak zirelako. Hori dela eta, 1990 urtean, Kanariar uharteak Aduana batasunean sartzea galdatu zuten. Kanariar uharteak Aduana Batasunean sartzearen ondorioz, bertako erregimen ekonomiko eta fiskalean zenbait aldaketa egin behar izan ziren, hau komunitateko eskakizunei egokitu zedin⁴². Hala ere, Komunitateak Kanariar uharteek zituzten berezitasunak zirela eta ordura arte izandako ezaugarri errespetatu zituen, eta gainerako Autonomia Erkidegoek baina presio fiskal txikiagoa izaten jarraitu zuten.

Gaur egun, Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Hitzarmeneko 349 eta 355. Artikuluetan oinarritzen da Kanariar Uharteek zerga arloan jasotzen duten trataera berezia. Kanariar uharteek gain, Guadalupe, Frantziar Guayanak, Martinikak, la Reunioneak, San Bartolomek, San Martinek, Azoreek eta Madeirak, beren urruntasuna, uhartetasuna, lurralde eremu murrizta, klima eta beste zenbait faktore direla eta, Europar Kontseiluak zenbait neurri hartzen ditu lurralde hauek duten egitura sozial eta ekonomikoa kontuan hartuta. Neurri horiek, aduana eta merkatu politikei, politika fiskalei, eremu frankoei...buruzkoak dira eta lurralde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuz aplikatzen dira, Europar Batasunaren ordenamendu juridikoaren batasuna eta koherentzia bermatuz eta errespetatuz⁴³. EBFH-ko 349. Artikuluan aipatzen diren

⁴¹ PINEDA RAMOS, Estefania, “El régimen económico y fiscal de Canarias: antecedentes y situación actual”, *Revista Atlántida*, 7 zkia 2006ko abenduaren 7koa, 183-213. Orr.

⁴² Aldaketa hauek, Estatu mailan uztailearen 7ko 20/1991 Legean adierazi ziren, Europa mailan berriz, 91/314/CEE erabakiaren bitartez.

⁴³ EUROPAKO PARLAMENTUA, “Regiones ultraperiféricas (RUP)”, Fichas técnicas sobre la Union Europea, 2019 (www.europarl.europa.eu/factsheets/es).

neurrien inguruan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak adierazi izan du neurri horiek lurralde jakin horiek dituzten ezaugarriak direla eta hauek jasaten dituzten desabantailak orekatzera bideratu behar direla soilik⁴⁴.

Aipatutako neurri bereziekin, Kanarietako egitura ekonomiko eta fiskala berdindu nahi da Espainiako gainontzeko lurraldeekiko. Presio fiskala gutxitzearen eta pizgarri ekonomikoak handiagotzearen bitartez, lortu nahi da Kanariar Uharteak erakargarriago bihurtzea, honen urruntasunak eta uhartetan eragiten dituen efektu negatiboak orekatzeko. Izan ere, urruntasunaz gain, Kanariar uharten eremu murrizak ez du aukera ematen nekazal ustiapen handiak burutzeko, gainera, uharte gehienek erliebea menditsua da eta duen klima leuna izatearen ondorioz, ez daude nahikoa urtegi eta ibai.

Kanariar uhartetako Erregimen Ekonomiko eta Fiskaleko pizgarri fiskalak REF bezala ezagutzen dira, eta bateragarriak dira Zuzenbide Komunitarioarekin, izan ere, EBFH-ko 107.3 artikuluan adierazten da barne merkatuarekin bateragarriak izango direla laguntzak, baldin eta hauek bizi baldintza baxuagoak dituzten lurraldeen garapen ekonomikoei mesede egitera bideratuta dauden, lurralde hauetan azpienplegu egoera larria badago edota lege honetako 349. Artikuluan zerrendatzen diren lurraldeak badira.

Espainiar Konstituzioan, hirugarren xedapen gehigarrian⁴⁵ aurkitzen dugu Kanariar uharten zerga erregimen bereziaren aurreikuspena, nahiz eta ez duen hau garatzen.

Bestalde, abenduaren 18ko 22/2009 Legeak, erregimen komuneko eta Autonomia Estatutua duten Autonomia Erkidegoen finantzazioa arautzen duen Legean adierazten da Kanariar uharten erregimen ekonomiko eta fiskalak zenbait berezitasun izango dituela⁴⁶. Horretaz gain, Kanarietako Erregimen Fiskal eta Ekonomikoaren berezitasunak uztailearen 6ko 19/1994 Legean aurreikusten dira, bertan jasotzen dira erregimen fiskal eta ekonomikoari dagokionez Kanariar Uhartetan aplikagarri izango diren neurriak, Lege

⁴⁴ EBJAren 2015eko abenduaren 15eko epaia, C-132/14: Sentencia del Tribunal de Justicia (Gran Sala) de 15 de diciembre de 2015, Parlamento Europeo y Comisión Europea contra Consejo de la Unión Europea. Base jurídica artículo 349 TFUE, Regiones ultraperiféricas de la Unión Europea.

⁴⁵ 1978ko Espainiar Konstituzioko Hirugarren Xedapen Gehigarriak dio: *“La modificación del régimen económico y fiscal del archipiélago canario requerirá informe previo de la Comunidad Autónoma o, en su caso, del órgano provisional autónomo”*.

⁴⁶ 2009ko abenduaren 18ko Legea 22/2009ko Bigarren Xedapen Gehigarria.

honen inguruan, Kanarietako Justizi Auzitegi Nagusiak Lege honen helburuak zein diren adierazi du:

“La ley 19/1994, de 6 de julio, de modificación del Regimen Economico y Fiscal de Canarias tiene. Una finalidad específica, actualizar los aspectos económicos del tradicional Regimen Economico Fiscal de Canarias; garantizar que la lejanía e insularidad de Canarias, que la convierten en región ultraperiferica de la Union Europea, sean compensadas a través de políticas específicas y suficientes; y establecer medidas económicas y fiscales encaminadas a promover el desarrollo económico y social de Canarias”⁴⁷.

Esaterako, Kanariar Uharteetan ez da aplikatzen tabako laboreen gaineko zerga, baina Autonomia Erkidego barruan produktu honen fabrikazioa eta inportazioa zergapetzen dituen zerga propioa dute. Beste bereizgarri bat da BEZ-aren aplikazio eza. Bertan, Kanarietako zeharkako zerga aplikatzen da (IGIC). Horrela, Kanariar uharteak zerga harmonizazio lurraldetik kanpo geratzen da, eta beste zerga hori aplikatzen da, lurralde honen inguruabarretara egokituz, presio fiskal txikiagoa izateko.

Kanariar Uharteek beraz, ezberdintasunak izango dituzte eraentza orokorrarekiko, baina ezin dugu hau Kontzertu Ekonomikora parekatu.. Lurralde hauek dituzten berezitasunak ezberdinak izateaz gain, horien arrazoiak ere ez dira berdinak, baina Kanarietako Uharteetako eta EAE-ko zerga eraentzek Espainiako zerga eraentza aniztasunaren eredu direla esan dezakegu.

4.4 Ceuta eta Melilla

Aztertzen ari garen arloan berezitasunak dituzten bi hiri dira Ceuta eta Melilla ere. Hauek, dituzten inguruabar geografiko eta historikoak direla eta, haien garapen ekonomikoa baldintzatuta egon da. Hori dela eta, trataera fiskal berezia izan dute, trataera hori berezia delarik ikuspuntu komunitario, estatal, autonomiko eta lokalarekiko.

⁴⁷ KJANaren 2016ko martxoaren 10eko 110/2016 ebazpena.

Ceuta eta Melillak finantzaketa autonomikoan parte hartzen dute, izan ere, hiri hauek Autonomia Estatutuak dituzte⁴⁸, eta Autonomia Estatutu hauetan ere arlo honetan duten berezitasuna aurreikusten da.

Espainiar Konstituzioko Bosgarren Xedapen Gehigarrian aurreikusten den moduan, Ceuta eta Melilla Autonomia Erkidego bihurtu ahalko dira bertako Udalek hala erabakitzen badute bertako kideek gehiago absolutua lortzen badute eta Gorte Orokorrek baimentzen badute, Lege Organiko bidez eta 144 artikulua jarraituz.

Horretaz gain, Autonomia Erkidegoen finantzaketari buruzko uztailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoko Bosgarren Xedapen Gehigarrian aurreikusten da Ceuta eta Melillak arlo fiskal eta ekonomikoak izango dituen berezitasunak.

Aipatutako trataera bereziaren jatorria 1863 urtean topatzen dugu, Ceuta eta Melilla portuak portu franko deklaratu zirenean. Honek, suposatu zuen bertara sartzen ziren salgaiak zergetatik salbuetsita egongo zirela. Horrela, 1955ean, Ceuta eta Melillako Erregimen Ekonomiko eta Finantzieroaren Oinarrien Legeak, lurralde franko deklaratu zituen Hiriak eta ez soilik bertako portuak, askatasuna ezarriz salgaien sarrera, irteera, zirkulazioa eta aldatetetan. Hori dela eta, bertan ez ziren galdagarriak izango Penintsulak ezartzen ziren arauak⁴⁹.

Ceuta eta Melilla ez dira Aduana batasunaren parte, aduana efektuei dagokionez kanpoko lurralde kontsideratzen dira. Hori dela eta, lurralde franko izaera mantentzen dute, eta bertan ez da BEZ-a aplikatzen, adibidez. BEZ-aren ordean, zerga propio bat ezartzen da, Produkzio, zerbitzu eta inportazioaren gaineko zerga (IPSI).

Europar Batasunak, lurralde autonomo berezi gisa kalifikatzen ditu hauek, eta Ceuta eta Melillaz gain beste zortzi aurreikusten ditu, Gibraltar, Alemaniako (Büdingen am Hochrein eta Heligoland), Italiako (Campione d'Italia eta Livigno) eta Finlandiako Aland probintzia autonomikoa. Azken finean, lurralde autonomo berezi hauek, Europar Batasunaren parte diren herrialdeen barnean daude, baina dituzten egoera geografiko eta

⁴⁸ Ceutaren Autonomia Estatutua martxoaren 13ko 1/1995 Lege Organiko bidez onartu zen eta Melillakoa, martxoaren 13ko 2/1995 Lege Organiko bitartez.

⁴⁹ MORÓN PÉREZ, Maria del Carmen, "El régimen fiscal de las ciudades autónomas de Ceuta y Melilla: presente y futuro", *Crónica tributaria*, 121 zkia, 2006. 59-96 Orr.

politikoak direla eta, Europar Batasuneko zuzenbideko zenbait materia ez dira aplikagarri izango bertan⁵⁰.

Kanariar Uharteek zerga arloan dituzten berezitasunekin gertatzen den bezala, Ceuta eta Melillak dituzten berezitasunak ere ezin ditugu Kontzertu Ekonomikoak eragiten dituenekin alderatu. Hauen arrazoiak guztiz ezberdinak dira, eta aipatu ditugun kasuak Espainiako zerga eraentza orokorretik aldentzen badira ere, era eta neurri ezberdinetan egiten dute.

5. KONTZERTU EKONOMIKOA ETA EUROPAR BATASUNAREN ARTEKO UZTARKETA

5.1 Abiapuntua

Lehenago aipatu dugun moduan, munduan estatu federal anitz daude, ezberdinak haien artean. Hala ere, denetan, deszentralizazioa da ezaugarri nagusia, botere banaketa ematen da. Espainiaren kasuan, Estatu Autonomikoan deszentralizazio maila altua da ere, hori dela eta, nahiz eta estatu federal ez izan, praktikan zuzenbide konparatuan aurkitzen ditugun estatu federalekin parekatu daiteke zenbait arlotan.

Espainian Kontzertu ekonomikoa federalismo fiskalaren adibidea dela adierazten du Gatzagaetxabarria Bastidak⁵¹. Federalismo fiskala kontzeptu ekonomikoa da, ez politikoa, hau da, Ogasun Publikoaren deszentralizazioari egiten dio erreferentzia eta ez Gobernuaren deszentralizazioari, hala ere, gehienetan, estatu deszentralizatuetan aurkituko dugu deszentralizazio fiskala. Jarraian deszentralizazio fiskala estatuko ezaugarri gisa duen Estatu baten kasua aztertuko dugu. Gure legezko eremu gertuenekoa Europar Batasuna den heinean, Alemaniaren kasua landuko dugu.

Lehenik eta behin, aipatu behar da, Europar Batasunaren Hitzarmeneko 4.2 artikuluan adierazten dela Batasunak Estatu kideen nazio nortasuna errespetatu beharko duela, hori

⁵⁰ Europar Batzordearen azaroaren 28ko 2006/112/CE Zuzentarauko 5. Artikulua.

⁵¹ GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA, Ricardo, "El Concierto Económico entre Euskadi y el Estado: radiografía de situación", EEAA, *Federalismo fiscal y Concierto Económico*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 2016, 147-158 Orr.

dela eta, haien egitura politiko eta konstituzionalak ere errespetatu beharko ditu⁵². Bestalde, eskumen esleipenaren inguruan, Europar Batasunaren Hitzarmeneko 5. artikuluan aurreikusten da Batasunaren eta Estatuaren eskumenak esleipen printzipioaren arabera izango direla, hau da, Batasunak Estatuak esleitukoaren arabera izango du eskumena, esleitu ez dituen eskumenen egikaritzea estatuenak izango direlarik. Gainera, Batasunak dituen eskumenak era proportzional batean egikaritu beharko ditu, bere helburuak lortzeko beharrezkoa denean. Baina azpimarragarriena eta ahaztu ezin duguna subsidiaritate printzipioa da, Europar Batasunak eskumen eskusiboa ez duen kasuetan, soilik parte hartu beharko du bere helburuak lortzeko Estatuak hori beren kabuz lortu ezin dutenean. Beraz, Europar Batasuneko Estatuak askatasun osoa dute beren eskumenen barne banaketa burutzeko, baina era berean, Estatuak Batasunak zehazten dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Hau da, estatuak ezingo diote aurka egin Europar Batasunaren zuzenbideari, hori gertatu ezker, Estatuak betebeharrak komunitarioak ez betetzeagatik zigortzeko aukera dagoelako⁵³.

Kontuan izan behar da ere, barne arauen aniztasunak ez duela diskriminazioa eragiten. Hori saihesteko, oinarritzko eskubideek merkatu komun baten sorrera bermatzen dute, eta era berean, estatuak debekatzen diete diskriminazioa eragiten duten neurria hartzea, salbu eta horretarako arrazoiren bat dagoen kasuetan. Hala ere, diskriminazioaren debekua ezartzeak ez du esan nahi Estatu baten barnean ezin direnik egon araudi ezberdinak⁵⁴.

5.2 Autonomien Estatua eta EB

Ez dugu Euskal Autonomia Erkidegoan dugunaren parekidea den eraentzarik aurkitzen Europar Batasuneko beste Estatuaren barnean eta honek, Estatu barnean zein Europar Batasuneko erakundeetan gatazka juridikoak eragin izan ditu. Izan ere, Espainia Europar Batasunean sartzearekin batera, bertako arauak bahea berri bat ezarri zitzaizkien, Estatuaren arauak Europar Batasuneko Zuzenbidea errespetatu beharko dutelarik ere, hau da, Kontzertu Ekonomikoa Europar Batasuneko Zuzenbidearekiko bateragarria izan beharko da ere.

⁵² Europar Batasuneko Hitzarmena, 4.2 artikulua.

⁵³ *Ibidem*, 5. Artikulua.

⁵⁴ BERNALES SORIANO, Roberto, "Federalismo fiscal en el siglo XXI: una visión global de nuestro entorno", EEAA, *Federalismo Fiscal y Concierto Económico: una aproximación desde el Derecho Comparado*, Eusko Legebiltzarra, 2016, 15-50. Orr.

Espainiar Konstituzioko 149.1.3 artikulua esan bezala, gainontzeko estatuekin eta EBko erakundeekin dituzten harremanak Estatuaren eskumen eskusibo dira. Eta era berean, Estatuaren eratu dagoen Europar Batasunak soilik hauekin izango du interakzio zuzena, Estatuaren barne egitura kontuan hartu gabe.

Espainiaren barne egitura dela eta, Autonomia Erkidegoek zenbait eskumen dituzte, eta eskumen horiek egikaritzuz sortzen eta aplikatzen dena ere Europar Batasuneko Zuzenbidera egokitu beharko da. Europar Batasunak, eskualde eta EBko erakundeen arteko elkarlana bermatzeko mekanismoak aurreikusi ditu. Espainiaren kasuan esaterako, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko kooperazio tresnak martxan jarri dira, hauek afektatzen dituzten europar gaietan nolabaiteko parte hartzea izan dezaten⁵⁵.

Lurralde Historikoei dagokienez, Espainia 1986an Europar Erkidegoan sartu zenetik, Zuzenbide Komunitarioak ordenamendu estatalean eta baita ordenamendu autonomikoan eragina izan du, beraz, Kontzertu Ekonomikoan ere bai, eta Europar Batasuna Kontzertu Ekonomikoaren garapenean eta osieran sartzen ez bada ere, eragina du beregain, eta hau baldintzatzen du. Batez ere, Europar Batasunak bere jurisdikzio sistemaren bitartez du eragina Kontzertu Ekonomikoarengan, izan ere, nazioarteko epaile gisa jarduten duen epaile nazionalak zaindu beharko du Kontzertu Ekonomikoaren eta Europar Batasuneko Zuzenbidearen arteko bateragarritasuna.

Auzitegi Gorenak aurreikusi zuen Estatuari dagokiela barne zuzenbidea Europar Batasuneko Zuzenbideari egokitzeko lana. Gainera, Euskal Lurralde Historikoei arlo horretan arauak ematen dituztenean, Kontzertu Ekonomikoko 3. Artikuluan aurreikusten diren harmonizazio arauak errespetatu beharko dituztela adierazi zuen. Adierazi izan du ere, Lurralde Historikoetako zerga foruak Europar Batasuneko arauen menpe egongo dela. Hori dela eta, estatuko arauak gain, Europar Batasuneko ordenamendua kontuan hartu beharko da, Kontzertu Ekonomikoa ikuspuntu espainiarretik interpretatzeaz gain, merkatu bateratu batetik ere hausnartu behar delako⁵⁶.

⁵⁵ SERRANO GAZTELUURRUTIA, Susana, *El Concierto Economico Vasco ante el Juez Comunitario*, IVAP, Oñati, 2012, 340. Orr.

⁵⁶ AG-ren 1999ko abenduaren 4ko 7774/1999 ebazpena.

Kontzertu Ekonomikoaren eta Europar Batasunaren arteko harremana ez da zuzena beraz, azken honek Estatu kideekin duelako soilik harremana, izan ere, ulertzen da Estatu bakoitza askea dela bere eskumenen banaketa burutzeko. Azken finean, Europar Batasuneko Zuzenbidearen osaera eta aplikazioan parte hartzen duena Estatuak da, eta dituzten eskumenen arabera, Autonomia Erkidegoak zuzenbide horren aplikazioa burutuko dute. Europar integrazioaren protagonista nagusiak Estatuak dira, baina Autonomia Erkidegoek berek eskumenen erabileran, Europar Batasuneko Zuzenbidea errespetatu beharko dute.

Beraz, argi geratzen da Autonomia Erkidegoek Europar Batasunarekin izan dezaketen edozein loturan, solaskidea Estatuak izango dela, lehen aipatu dugun moduan, Autonomia Erkidegoek ez dutelako Europar Batasunarekin harreman zuzena. Autonomia Erkidegoak Europar Batasuneko Zuzenbidearen bahea pasa beharko dute, eta hau zalantzan jartzen denean edo urratu dela ulertzen denean, Europar Batasunaren aurrean erantzulea Espainiar estatuak izango da.

Jarraian ikusiko dugun moduan, Kontzertu Ekonomikoak Europar Batasuneko Zuzenbidearekin topo egin du zenbaitetan. Estatuak, zenbait instituziok edota erakundeek Zerga Arau Foralak Europar Batasunaren Zuzenbidearekin bateragarriak ez direla salatu izan dute. Hori dela eta, eta aipatu bezala Kontzertu Ekonomikoa Estatuaren barne gaia den arren bere judizializazioa eremu estataletik komunitariora zabaldu izan da.

5.3 Kontzertu Ekonomikoa Auzitegien aurrean hizpide

Asko izan dira zerga arloko Arau Foralen inguruan egondako auziak. Hauek, arrazoi ezberdinengatik eman dira, baina jarraian, Elkartearen Gaineko Zergaren ingurukoa aztertuko dugu. Azken finean, Elkartearen Gaineko Zergaren inguruko auziak, Kontzertu Ekonomikoaren aurkako eraso bat suposatu zuen, eta eraso hori Europar Batasunaren Zuzenbidearen urrapenean oinarritu zen.

5.3.1 AGren 2004ko abenduaren 9ko epaia

Auzitegi Gorenak 2004ko abenduaren 9ko epaia eman zuen arte, Espainiako Auzitegiek Kontzertu Ekonomikoarekiko izan zuten jarrera errespetuzkoa izan zen, baina ebazpen hau ematearen ondorioz Kontzertu Ekonomikoa arriskuan ikusi zen.

Esan bezala, jarraian, Espainiako Auzitegi Gorenak 2004ko abenduaren 9an emandako ebazpena⁵⁷ aztertuko dugu, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Lurralde Historikoek dituzten Arau Foralak zalantzan jartzen dituen, zehazki, Arau Foralek erregulatzen duten Elkarteen gaineko zergaren inguruko neurriak zalantzan jartzen ditu eta. Larrazabal Basañezek dion moduan, arrisku hau eragin zuten arazoak bi izan ziren⁵⁸. Alde batetik, ebazpen honetan argi ikusten den moduan, Arau Foralak aurkaratzeko legitimazio aktibo zabalak arazo bat suposatu zuen Kontzertu Ekonomikoarentzat. Auzitegi Gorenak lehenago legitimazio aktiboaren kontzeptua definitu zuen, eta honek zehaztu zuen interes legitimoa zuen edonork izango zuela Arau Foralak aurkaratzeko legitimazio aktiboa. Interes hori gainera zentzu zabalean ulertzen du Auzitegiak⁵⁹. Honek eragiten du, edonork arau foralak zalantzan jartzeko ahalmena izatea, segurtasun gabezia juridikoa sortzen zelarik. Horren aurrean, asko izan dira Arau Foralen babesa galdu zutenak, Kontzertu Ekonomikoaren blindatze juridikoa erreklamatu. Bestalde, eta ebazpen honek planteatzen duen arazoaren funtsa denak suposatu zuen benetako arriskua Kontzertu Ekonomikoarentzat. Auzitegi Gorenaren ebazpen honetan, Arau Foralek ezartzen dituzten arauketa fiskalak estatuko laguntza gisa kalifikatu ziren, araudi komunitik ezberdintzen ziren heinean. Hori dela eta, Auzitegi Gorenak, Arau Foraletako zenbait artikulua baliogabeak deklaratu zituen.

Auzitegi Gorenaren Sententzia hau, Errioxako Enpresarien Federazioak zein Euskal Erakundeek ezarritako kasazio errekurtsoei emandako erantzun gisa eman zen. Kasazio errekurtsu hauek, Euskal Herriko Justizia Auzitegiak 1999 urteko irailaren 30ean

⁵⁷ AGren 2004ko abenduaren 9ko epaia, zenbait arau foral deuseztatzen dituen, EBak debekatzen dituen estatuko laguntza direla ulertzeagatik.

⁵⁸ LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago, “Los retos del Concierto Economico Vasco tras la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 11 de Septiembre de 2008”, *JADO Aldizkaria*, 17 zkia, 2009ko iraila, 37-84. Orr.

⁵⁹ AGren 2004ko azaroaren 3ko epaian adibidez, adierazten da: “*De modo que el interes se reputa que existe siempre que pueda presumirse que la declaración jurídica pretendida habría de colocar al accionante en condiciones legales naturales de conseguir un determinado beneficio material o jurídico, o incluso de índole moral así cuando la persistencia de la situación fáctica creada o que pudiera crear el acto administrativo ocasionara un perjuicio, con tal de que la repercusión del mismo no sea lejanamente derivado indirecta sino resultado inmediato de la resolución dictada o que se dicte o llegue a dictarse*”.

emandako Sententzia baten aurka ezarri ziren. Sententzia horretan, Elkarteen gaineko Zergaren arau foraleko 26. Artikulua baliogabetu zen, Errioxako Enpresarien Federazioak aipatutako arau foralen aurka hasitako prozedurari erantzunez.

Hala ere, ez ziren baliogabetu Errioxako Enpresarien Federazioak baliogabetu nahi zituzten gainontzeko xedapenak, hori dela eta, hauek ezarritako errekurtsioa ia osotasunean atzera bota zen. Hauek nahi zutena, Europar Batasunak aurreikusten zituen Estatuko laguntzaren teoria aplikatzea zen, baina Auzitegiak ondorioztatu zuen kasu honetan barne gatazka baten aurrean zeuden heinean eta atzerritartasun irizpiderik ez zegoenez, bertako arau eta printzipioen arabera irtenbidea emango zitzaioa⁶⁰, adierazi zuen Lurralde Historikoek arauketarako gaitasuna dutela eta gainontzeko lurraldeekiko dituzten neurri ezberdinak justifikatuak daudela baldin eta ez diren merkatu komunaren eta oinarrizko berdintasunaren printzipioa urratzen zerga kargen ezberdintasun drastikoak direla eta. 26. Artikuluan aurreikusten zen enpresa berrien sorrerarako zerga oinarria desproporzionala zela ulertu zuen Auzitegiak beraz, baina ez gainontzeko artikuluak, esan bezala, hauek Konstituzioak, Autonomia Estatutuak eta Kontzertu Ekonomikoaren Legeak babesten dituen Lurralde Historikoek duten arauketa gaitasunaren isla direlako.

Hori dela eta, 1999 urteko ebazpenaren aurka ezarritako kasazio errekurtsioekin, Euskal Erakundeek 1999an emandako sententzia baliogabetzea nahi zuten, Auzitegiak Elkarteen gaineko Zergaren inguruko arau foral guztien legezkotasuna aurreikusi zezan. Bestalde, Errioxako Enpresarien Federazioak, aipatutako arau foralak osotasunean baliogabetzeko galdatzen zuen, eta subsidiarioki araudi estatala baino onuragarriagoak ziren xedapenen baliogabetzea, gainera, estatuko laguntzen aurrean egoteko aukera zegoenez, adierazten zuten legezkontrakotasuna zegoela, Europar Batzordeari ez zitzaiolako hau jakinarazi⁶¹.

⁶⁰ AGren 1999ko irailaren 30eko epaia.

⁶¹ Betebehar hau, EBHko 88.3 artikuluan aurreikusten zen, gaur egun EBFHko 108.3: *“La Comisión será informada de los proyectos dirigidos a conceder o modificar ayudas con la suficiente antelación para poder presentar sus observaciones. Si considerare que un proyecto no es compatible con el mercado interior con arreglo al artículo 107, la Comisión iniciará sin demora el procedimiento previsto en el apartado anterior. El Estado miembro interesado no podrá ejecutar las medidas proyectadas antes que en dicho procedimiento haya recaído decisión definitiva”*.

Errioxako Enpresarien Federazioaren errekurtoa lau arrazoietan oinarritzen zen. Lehenik eta behin adierazten zuten Arau Foraletan aurreikusten ziren pizgarri fiskalek Europar Batasuneko Hitzarmeneko 87. Artikuluan jasotzen diren Estatuko laguntzak zirela, eta hau Europar Batzordeari ez jakinarazteak legekontrakotasuna eragiten zuela. Bigarren argudio gisa, adierazi zuten, Arau Foralek ez zituztela errespetatzen Konstituzioan jasotzen diren zenbait printzipio, solidaritatearen printzipioa eta pribilegio sozialek debekuaren printzipioa, esaterako. Hirugarrenik, arrazoitu zuten Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziari aurka egiten ziola Auzitegiaren Sententziak, lehiakortasun eta proportzionaltasunaren inguruan, eta azkenik, Kontzertu Ekonomikoan jasotzen den harmonizazioaren printzipioa betetzen ez zela adierazten zuten.

Horrela Auzitegi Gorenak, Errioxako Enpresarien Federazioak adierazitako lehenengo arrazoia kontuan hartuz, errekurtoa partzialki onartu zuen. Hau da, Auzitegi Gorenak 2004ko abenduaren 9an emandako sententziak, Euskal Erakundeek ezarritako errekurtoak desestimatu zituen, 1999ko sententzia baliogabetu zuen, eta partzialki, Errioxako Enpresarien Federazioak ezarritako errekurtoa onartu zuen, adieraziz:

“La primacía y el efecto directo de las disposiciones comunitarias no dispensan a los Estados miembros de la obligación de eliminar de su orden jurídico interno aquellas disposiciones que resulten incompatibles. La discriminación o la existencia de elementos de ayuda de Estado, de existir en las Normas Forales impugnadas, alcanzaría tanto a los residentes en otro Estados miembros como a los residentes en el territorio común español. En consecuencia, no puede negarse interés ni consecuentemente, legitimación a la Federación recurrente para alegar la normativa europea que también ampara a los empresarios a que representa”.

Auzitegi Gorenak beraz, aztertu zuen ea Elkarteen Gaineko Zergaren inguruko Arau Foralak Estatuko laguntza suposatzen zuten edo ez. Orduan, Estatuko laguntza, Europar Batasuneko Hitzarmeneko 87. Artikuluan aurreikusten zen, bertan adierazten zen:

“Salvo que el presente Tratado disponga otra cosa, serán incompatibles con el mercado común, en la medida que afecten a los intercambios comerciales entre Estados miembros, las ayudas otorgadas por los Estados o mediante fondos

estatales, bajo cualquier forma, que falseen o amenacen falsear la competencia, favoreciendo a determinadas empresas o producciones”⁶².

Horretaz gain, artikuluan bertan zenbait laguntza aipatzen dira, merkatu komunarekin bateragarriak izango direnak. Aztertzen ari garen sententzian ere aipatzen den moduan, laguntza hauek nolabaiteko onura fiskal bat suposatzen dutela, azken finean arau batek karga fiskal baten gutxiagotzea badakar soilik enpresa jakin batzuentzat, hau, laguntza dela ulertuko delarik⁶³.

Hautakortasun irizpidea da gatazkatsua suertatzen dena, izan ere, onura edo zerga salbuespen batek bere onuraduna egoera lehiakor hobean kokatzen badu gainontzeko zergapekoekiko, guztiek sektore edo eremu berean jarduten duten heinean, Estatuko laguntza dagoela ulertu daitekeelako, eta esan bezala, hau ez da bateragarria barne merkatuarekin.

Gainera, Justizia Auzitegiak estatuko laguntza kalifikatu ahal izateko bost baldintza galdatzen ditu: Onura ekonomiko bat eragin behar du, Estatuari (edozein mailatan) inputagarri izan behar zaio onura hori, onuraduna enpresa bat izan behar da, lehian ondorio bat izan behar du eta Europar Batasuneko merkatuan ere ondorioak eragin behar ditu⁶⁴.

Behin Estatuko laguntzen kontzeptua aztertuta, Auzitegiak ulertu zuen Arau Foraletako zenbait xedapen Zuzenbidearen aurkakoak zirela, eta Elkarteen gaineko zergaren inguruko arau foralen 13 xedapen baliogabetu zituen. Auzitegi Gorenak azken finean ulertu zuen, Arau Foraletan ezartzen ziren zenbait neurri, zehazki, Elkarteen Gaineko Zergaren ingurukoak selektibo edo hautakorrak zirela arrazoi geografikoak zirela, soilik Europar Batasuneko eskualde batean zirelako aplikagarri. Adierazi zuen doktrina errepikatua bazegoela ulertzeko eskualdeko hautaketa zegoela, beraz, estatuko laguntza gisa kalifikatu zitekeela. Estatuko laguntza izan zitezkeenez, hauek lehia askea

⁶² Gaur egun, EBFHko 107. Artikuluan aurreikusten da..

⁶³ AGren 2004ko abenduaren 9ko epaiak dio: “*De esta manera, la ventaja puede traducirse en un beneficio fiscal y puede decirse que una Norma que tenga como resultado la disminución de la carga fiscal soportada por las empresas comprendidas dentro de su ámbito de aplicación subjetivo constituye una ayuda en el sentido del artículo 87 del Tratado*”.

⁶⁴ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, Jose eta URREA CORRES, Mariola, “Unión Europea y financiación autonómica: la jurisprudencia del Tribunal de Justicia sobre los sistemas tributarios de los entes territoriales subestatales”, *RAEF*, 8 zkia, 2009ko apirila, 37-84 Orr.

urratu zezaketen, hori dela eta, aurretiaz Europar Batzordea jakinarazteko beharra zegoen Europar Batasuneko Hitzarmenean adierazten zen bezala.

Horrela, Sententzia honek, lehenik eta behin Errioxako Enpresarien Federazioak Arau Foralak aurkaratzeko zuten legitimazio aktiboa baieztatu zuen. Baina honen azterketa hastean esan dugun bezala, hau gutxienekoa izan zen. Horretaz gain, Auzitegiak Diputazio Foralek duten arauketarako gaitasuna aurreikusi zuen, izan ere, hau Konstituzioak, Autonomia Estatutuak eta Kontzertu Ekonomikoaren Legeak berak ere aurreikusten du. Adierazi zuen Espainiar ordenamenduak lurralde historikoen eskubide historikoak aurreikusten dituela, horien artean zerga erregimenaren arauketa egongo delarik. Hala ere, Auzitegiak dio hauek Konstituzioaren eta Estatuko Legeen menpe egon beharko dela, hori dela eta, espainiar guztien arteko berdintasuna bermatu behar den heinean, presio fiskal berdina izan beharko da arau hauek zehazten dutena ere.

Hori dela eta, Auzitegi Gorenak ulertu zuen zenbait xedapenek urratu egiten zutela espainiar guztiei presio fiskal berdina ezartzearen neurria eta azken hauek estatuko laguntza kontsideratu zitezkeela adierazi zuen, honek justifikatu gabeko abantaila lehiakorra suposatzen zuelako. Ondorioz, 13 Xedapen baliogabetu zituen.

Sententzia honek suposatu zuen ordura arte Espainiako Auzitegiek Kontzertu Ekonomikoarekin izandako harremanaren norabidea aldatzea, horrela, Kontzertu Ekonomikoaren etorkizuna arriskuan geratu zen geroztik.

Egoera horren aurrean, Euskal Erakundeek berehala egin zioten aurka Auzitegi Gorenak emandako Sententziari. Lehenik eta behin, ekintzak baliogabetzeko sesioa aurkeztu zuten Auzitegi Gorenaren aurrean, baina honek hau ukatu zuen. Hori dela eta, Auzitegi Konstituzionalaren aurrean babes helegiteak aurkeztu zituzten, arrazoituz Konstituzioko 24. Artikuluan aurreikusten den babes juridiko efektiboaren eskubidea urratu zela, Auzitegi Gorenak ez zuelako Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean judizio aurreko auzirik aurkeztu, Europar Komunitateko Hitzarmeneko 234.artikuluan ezartzen zen moduan⁶⁵. Kasu honetan, Europar Batasuneko Hitzarmeneko

⁶⁵ Europar Batasuneko Hitzarmeneko 234. Artikulua (gaur egungo Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Hitzarmenaren 267. Art): *“El Tribunal de Justicia será competente para pronunciarse, con carácter prejudicial: a) sobre la interpretación del presente Tratado; b) sobre la validez e interpretación de los actos adoptados por las instituciones de la Comunidad y por el BCE; c) sobre la interpretación de los estatutos de los organismos creados por un acto del Consejo, cuando dichos estatutos así lo prevean. Cuando se plantee una cuestión de esta naturaleza ante un órgano jurisdiccional de uno de*

87. Artikuluaren interpretazioan oinarritzen zen arazoa, hori dela eta, Euskal Erakundeen ustez aplikagarri zen Europar Komunitateko Hitzarmeneko 234. Artikulua. Hala ere, Auzitegi Konstituzionalak ez zituen Euskal Erakundeen helegiteak onartu, Luxemburgoko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia⁶⁶ aplikatuz, adierazi zuen obligazio hori desagertzen dela baldin eta Europar Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio zuzenak auzia argitzeko zalantzarik gabe egokia bada.

Une horretatik aurrera, Kontzertu Ekonomikoarentzat amesgaiztoa hasi zen, etengabe erasoak jasan zituen, behin eta berriz zalantzan jartzen zelarik. Auzitegi Gorenak aztertu dugun sententzian izandako jarrera aprobetxatuz, estatuaren arauditik ezberdintzen ziren arau foralak aurkatzen jarraitu ziren, hauetako asko baliogabetu zirelarik.

5.3.2 EBko Justizia Auzitegiaren 2006ko irailaren 6ko epaia

Kontzertu Ekonomikoak bizi zuen une zail horretan, Europar eremuan antzeko kasu bat mahaigaineratu zen, Azoreetako kasua. Europar Batzordeak ebazpen bat eman zuen, zeinetan estatuko laguntza gisa kalifikatu zituen Azore uharteetan helbideratutako Pertsona Fisiko eta Juridikoen gaineko Zerga oinarrien murrizketa, Portugaleko gainontzeko eremuetan aplikatzen zenarekin alderatuta⁶⁷.

Ebazpen horren aurka, Portugalek deuseztasun helegite bat ezarri zuen. Horrela, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ebatzi beharko zuen ea Estatu bateko eskualde baterako soilik eginiko zerga oinarrien aldaketa, merkatu komunaren aurkakoa den eta

los Estadosmiembros, dicho órgano podrá pedir al Tribunal de Justicia que se pronuncie sobre la misma, si estimanecesaria una decisión al respecto para poder emitir su fallo. Cuando se plantee una cuestión de este tipo en un asunto pendiente ante un órgano jurisdiccionalnacional, cuyas decisiones no sean susceptibles de ulterior recurso judicial de Derecho interno, dichoórgano estará obligado a someter la cuestión al Tribunal de Justicia.”

⁶⁶ Luxemburgoko Justizia Auzitegiaren 1982ko urriaren 6ko epaia, Cilfit y otros: “*ha de dar cumplimiento a su obligación de someter dicha cuestión al Tribunal de Justicia, a menos que haya comprobado que la cuestión suscitada no es pertinente, o que la disposición comunitaria de que se trata fue ya objeto de interpretación por el Tribunal de Justicia, o que la correcta aplicación del Derecho comunitario se impone con tal evidencia que no deja lugar a duda razonable alguna*”.

⁶⁷ MERINO JARA, Isaac, “A vueltas con las ayudas del estado de carácter fiscal”, *Forum fiscal de Alava*, 10-11 zkia, 2007, 25-42 Orr.

Europar Batasuneko Hitzarmeneko 87.1 artikuluan⁶⁸ aurreikusten zen estatuko laguntza kontsideratu zitekeen edo ez⁶⁹.

Ebazpena eman baino lehen, Abokatu Nagusia zen Geelhoed jaunak zenbait ondorio aurkeztu zituen 2005eko urriaren 20an eta adierazi zuen Estatu batean eskualde jakin baterako zerga oinarriak aldatzeak ez duela suposatzen zuzenean hau Estatuko laguntza izatea, baldin eta honek zenbait betekizun betetzen dituen.

2006ko irailaren 6an Justizia Auzitegiak ebazpena eman zuen, eta horretarako, Abokatu Nagusiaren ondorioetan oinarritu zen, berri ona izan zen hau Kontzertu Ekonomikoarentzat. Sententzian adierazi zen, Estatu batean eremu jakin baterako sortutako neurri batek onura sortzen duenean, Euskal Arau Foralekin gertatzen den moduan, ez dela ulertu behar zuzenean Europar Zuzenbideak debekatzen duen Estatuko laguntza izango denik. Zein kasutan Estatuko laguntza izango den jakiteko, Abokatu Nagusiak zehaztutako betekizunak adierazten dira Sententzian. Santiago Larrazabal adituak betekizun hauek laburki azaltzen ditu, horrela, ondorengo betekizunak betetzen direnean, ulertuko da eskualde batek nahikoa autonomia politiko eta finantziario izango duela ezarritako zerga oinarri onuragarriak Europar Batasunak debekatzen dituen Estatuko Laguntza ez kontsideratzeko:

“a) Que la autoridad regional o local cuente con un estatuto político y administrativo distinto del Gobierno Central- autonomía política o institucional; b) Que la decisión haya sido adoptada sin que el Gobierno Central haya intervenido directamente en su contenido-autonomía procesal; y c) Que las consecuencias financieras de un tipo impositivo reducido (es decir, la reducción de ingresos que ellos upone para dichas autoridades), no se vean compensads por ayudas o subvenciones procedentes de otras o del Gobierno central- autonomía económica”⁷⁰.

Betekizunak adierazi ostean, Auzitegiak ondorioztatu zuen Azore uharteek ez zutela aipatutako hirugarren betekizuna betetzen, izan ere, Azoreetan zuten zerga oinarri

⁶⁸ Gaur egun Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Hitzarmenaren 107. Artikulua dena.

⁶⁹ SERRANO GAZTELUURRUTIA, Susana, “La incidencia de las ayudas de Estado en las cooperativas vascas”, *Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria*, 7 zkia, 2011, 111-153 Orr.

⁷⁰ LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago, “Los retos del Concierto Economico Vasco tras la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 11 de Septiembre de 2008”, *JADO Aldizkaria*, 17 zkia, 2009ko iraila, 37-84. Orr.

baxuagoaren ondorio ziren diru sarrera murriztago horiek orekatuak ikusten zirelako Estatu Zentralean jatorria zuten transferentzien bitartez.

5.3.3 EBko Justizia Auzitegiaren 2008ko irailaren 11ko epaia

Azoreetako kasuan emandako ebazpenak dena aldatu zuen Kontzertu Ekonomikoarentzat, eta honetan oinarrituz, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak judizio aurreko auzia mahaigaineratu zuen. Auzitegi Nagusiak ulertzen zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko kasuak, Azoreetako kasuan emandako epaian aipaturiko betekizunak betetzen zituela.

Lehenengo puntuari zegokionez, Lurralde Historikoek beren estatutu politiko eta administratiboak zituztela argudiatu zuten, betekizun hau betetzen zutela ulertuz. Bigarren puntuaren inguruan, euskal autoritateek Gobernu Zentralaren parte hartzearen menpe ez badaude ere, Kontzertu Ekonomikoaren eraentzan adiskidetzarako mekanismo batzuk aurreikusten ziren, zeinetan erakunde ezberdinen parte hartzea bermatzen zen, eta euskal araudiak zenbait printzipio orokor errespetatu behar dituenez, puntu honen inguruan zalantzak izan zituen Auzitegiak. Azkenik, hirugarren betekizunari buruz, Auzitegiak adierazi zuen zalantzak zituela, izan ere, euskal autonomia ekonomikoa oso zabala bada ere, totala ez den heinean, ez zekiten betekizun hau betetzat ulertuko zuten edo ez⁷¹.

Kontuan izan behar da, kasu honetan judizio aurreko auzi bat zela, Hitzarmeneko 87 eta 88. Artikuluen interpretazioa objektu zuena. Hori dela eta, EBko Justizia Auzitegiak interpretaziorako jarraibideak eman zituen soilik, jarraibide horietan oinarrituz, azken erabakia Espainiako Auzitegiek izango zutelarik.⁷²

Horrela, Luxemburgoko Auzitegiak, 2008ko irailaren 11an ebazpena eman zuen. Autonomia instituzionalaren inguruan, Auzitegiak adierazi zuen Gernikako Estatutuan, Konstituzioan eta Kontzertu Ekonomikoaren eraentzan oinarrituz, autonomia baduela, nahiz eta Estatuari kupoia emateko beharra duen eta Euskal Autonomia Erkidegoa

⁷¹ *Idem.*

⁷² MARTIN Y PEREZ DE NANCLARES, Jose Martin eta URREA CORRES, Mariola, "Union Europea y financiación autonómica: La jurisprudencia del Tribunal de Justicia sobre los sistemas tributarios de los entes territoriales subestatales", *RAEF*, 8 zkia, 2009ko apirila, 37-84 Orr.

Estatuak zehazten duen planifikazio ekonomiko orokorrean barneratzen den. Bestetik, Prozedimendu autonomiari dagokionez, Auzitegiak argudiatu zuen adiskidetze tresnak badaude ere, hauek ez dutela erakunde foralen autonomian eragiten, betiere arau baten sorreran azken erabakia Lurralde Historikoena baldin bada era eskusiboan. Horretaz gain, adierazi zuen solidaritate, merkatuaren batasun, berdintasun..printzipioak errespetatu behar dituztela arau foralak onartzerako unean, baina Espainiako Gobernuak ezin duela arau bat hartzeko prozesuan zuzenean parte hartu printzipio hauek ezartzeko asmoz. Printzipio hauek ez dute Lurralde Historikoen erabakiak hartzeko autonomia murrizten, baizik eta honen mugak zehazten ditu. Kontzertu Ekonomikoko 3. Artikuluak aurreikusten duen harmonizazio fiskalaren inguruan Auzitegiak berdina irizten du, eta adierazten du prozeduran autonomia dagoela zehazteko irizpidea ez dela entitateak duen eskumenaren zabaltasuna, baizik eta entitate horrek Gobernu zentralaren parte hartzerik gabe erabakiak hartzeko duen ahalmen edo gaitasuna. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Lurralde Historikoen autonomia ekonomikoaren inguruan, Auzitegiak adierazi zuen hau dagoela ulertuko dela estatu azpiko erakundea zerga oinarri baxuago horiek eragindako ondorio politiko eta ekonomikoak onartzeko gaitasuna duenean. Horretarako, Auzitegiak kupoaz aztertu zuen, honek Estatu espainiarrak emandako konpentsazio efektuen bat sortzen zuen edo ez jakiteko. Hori aztertuta, Auzitegiak ebatzi zuen Estatuak Estatu azpiko erakundeei egindako transferentzia finantzieroak bazeudela, hau ez zela nahikoa adierazteko erakunde horiek ez zituztela beregain hartzen neurri fiskalen ondorioak, hau da, autonomia ekonomikoa ez zutela. Transferentzia horiek, neurri horiekin zerikusirik ez duten arrazoi batean oinarritu daitezkeelako⁷³.

Auzitegiaren ebazpenak barne Auzitegiari uzten dio erakunde foralek nahikoa autonomia duten edo ez adierazteko lana, baina Auzitegiaren hautemateetatik ondorioztatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Foralek aipatutako hiru autonomia mailak dituztela, hori dela eta, 2004 urtean zehaztutako argudioek eraldaketa jasan zuten Espainiako Auzitegietan Kontzertu Ekonomikoaren mesedetan.

⁷³ EBJAren 2008ko irailaren 11ko ebazpena: Unión General de Trabajadores de La Rioja (UGT-Rioja) y otros contra Juntas Generales del Territorio Histórico de Vizcaya y otros...Asuntos acumulados C-428/06 a C-434/06.

6. ZERGA ERAENTZARI EMANIKO TRATAERA EUROPAR BATASUNeko ESTATU DESZENTRALIZATUETAN: ALEMANIAREN ERAENTZARI HURBILPENA

Alemaniko Errepublika Federalaren kontestura hurbilduz, esanenezake, alde batetik Federazioak, eta bestetik 16 Estatu federalek, hau da, Landerrek eratzen dutela. Azken hauek, gobernu botere autonomo bat ordezkatzeko dute, horrela, lander bakoitzak bere eskubide eta obligazioak ditu. Udalerriak, bere aldetik, estatu federatuen parte izango dira. Hori dela eta, hiru gobernu maila egongo dira, Gobernu federala (*Bund*), gobernu erregionalak (*landerrak*) eta gobernu lokalak (*Städte und Gemeinden*).

Espanian Autonomia Erkidegoekin gertatzen ez den bezala, *Länder* guztiek eskuduntza berdinak dituzte. Gainera, aipagarria da Estatu federatuen arteko ezberdintasun ekonomikoak oso nabarmenak direla, Ekialdekoak historikoki gutxiago garatuak daude industriari eta baita ogasunari dagokionez. Hauetan, langabezia tasa ere altuagoa da, hori dela eta, Gobernua hauen garapena mendebaldeko estatu federatuen garapenari parekatzen saiatzen da.

Lehenik eta behin, esan behar da ez dela erraza Alemaniko Errepublika Federalean indarrean dagoen zerga sistema laburtzea. Hasteko, esan behar da, Alemanian indarrean dagoen sistema federalismo kooperatibo batean oinarritzen dela. Hain zuzen ere, federalismo kooperatiboa emango da nazioaren helburuak gobernu maila ezberdinen arteko lankidetzari esker lortzen direlako. Estatuaren funtzioak *Länderrek* betetzen dituzte, salbu eta Konstituzioak espresuki hauek federazioari esleitzen dizkionean edo federazioak legeak egiteko duen gaitasuna egikaritu eta pilaketa ematen denean. Gainera, sarrera fiskalak Estatuaren (talde gisa ulertuta) sarrerak direla ulertzen da eta ez Gobernu Federalarenak. Gobernu arteko zerga harremanak, diru sarreraren banaketan eta berdintasun fiskal maila altu batean oinarritzen dira⁷⁴.

Arlo honetako eskuduntzen inguruko esleipena Konstituzio Federalean⁷⁵ aurreikusten da. Zergen tasak eta oinarriak zehazteko eskuduntza, adibidez, oso

⁷⁴ FUEST, Clemens, "Federalismo Fiscal y Nivelacion Fiscal en Alemania", *Gaztela-Mantxako Aldizkari Ekonomikoa*, 8 zkia, 2006, 261-289. Orr.

⁷⁵ Alemaniko Errepublika Federalesko Konstituzioa Grudengesetz gisa ezagutzen da, eta hau 1949ko maiatzaren 23ko Alemaniko Errepublika Federalesko Oinarritzko Lege bezala jasutzen da.

zentralizatua dago, hau da, esan daiteke eskualde mailan zergen zehaztapenean dagoen autonomia kaskarra dela.

Alemaniko sistema fiskalak duen beste ezaugarri garrantzitsu bat diru sarrerren banaketan aurkitzen dugu, bertan bi sistemen elkarbizitza ematen delako: diru sarreretan parte hartzea eta diru sarrerak banatzea. Zerga jakin bat diru sarrerren banaketaren sistemari lotuta baldin badago, hau maila ezberdinen artean banatuko da, gerora, banaketa formulak kontuan hartuz. Zerga diru sarrerren banaketaren sistemari lotuta badago berriz, hau, ogasun maila jakin bati dagokio. Diru sarrera gehien eragiten dituzten zergak pertsona fisikoen gaineko zerga eta balio erantsiaren gaineko zerga dira, eta hauek diru sarrerren parte hartzearen sistemari lotuta dauden heinean, diru sarrera hauek lehen aipatu ditugun hiru mailen artean banatzen dira. Beraz, diru sarrera gehienak banatzen direla esan dezakegu.

Ezin dugu Alemaniako egitura fiskalaren azterketa labur hau bukatu nibelazio fiskala aipatu gabe. Alemaniako berdinketa sistema Konstituzioan aurreikusten da, bertan adierazten da eta helburu gisa duela herrialde osoko bizi baldintzak parekatzea dela, eta *Länderren* arteko ezberdintasunak gutxitzearen bitartez lortuko da hau. Horretarako, desorekak nolabait gainditzeko, eskualde aberatsenek behardunei transakzio edo ordainketak egiten dizkiete.

7. ONDORIOAK

Kontzertu Ekonomikoaren inguruko azterketari bukaera eman diogun honetan, ondorio edo emaitza batzuk laburbiltzera natorkizue, orokorretatik hasi eta zehatzean bukatuaz:

LEHENENGOA: Kontzertu Ekonomikoaren iraunkortasun tenporal eta materiala da bere indargune nagusia. Ez dago Kontzertuaren alde egiteko bere iraunkortasuna baino argudio hoberik. Batez ere, izan dituen aurkari eta eraso guztiak kontuan hartzen badira. Argi daukat baita ere Kontzertuak bizirik jarraitzen duen bitartean eraso horiek jarraituko dutela, berezi edo bereizgarri izateagatik jasan behar duena dela baitirudi. Baina argi dago Kontzertuaren defendatzaileek bere jarraipenaren

alde egiteko nahikoa argudio eta arrazoi dituztela ere. Esaterako, ez dago Kontzertua ordezkaturiko lukeen alternatiba eraginkorrik, eta gainera hau aldatzekotan, lehenik eta behin, Konstituzioaren erreforma egin beharko litzateke, bertan aurreikusten delako Lurralde Foralen eskubide historikoen babesak. Gainera, ez du zentzurik emaitza onak eragiten dituen sistema bat ezabatzea. Izan ere, Kontzertuak autogobernuaren garapenerako baliabide nahikoa izatea ahalbidetzen du, eta ondorioz, Euskadin hezkuntza edota osasungintza arloan biztanleko egiten den gastua altua da, horrek dakarren balorazio positiboaren herritarren artean.

BIGARRENA: Kontzertu Ekonomikoaren oinarrian dauden eskubide historikoak sustrai lejitimatuak dituzte, ezbaian jartzeko ahaleginak egin badira ere. Abantaila dela esan dezakete, baina Gerra Karlistak galdu aurretik Lurralde Historikoek zuten autonomiaren kondarrei ezin zaie abantaila deitu. Espainiako Konstituzio aurreko eskubide historikoak ez dira abantaila, bizitakoagatik merezitako eskubide baizik. Gure jatorri eta historiari lotzen gaituen tresna da. Esan daiteke, eskubide historikoak eta baita Kontzertu Ekonomikoak ere legitimazio historikoen, konstituzional eta estatutarioaren, eta sozialaren jabe direla gaur egun.

HIRUGARRENA: Kontzertu Ekonomikoaren desagerpenak ez luke onuradun zuzenik. Zaila da ulertzen argudio juridiko eta ekonomikoekin Espainiako beste Autonomia Erkidego batzuen aldetik eta alderdi politiko batzuen aldetik sortutako erasoak, batez ere, kontuan hartuz beste Autonomi Erkidegoak ez liratekeela onuradun suertaturiko Kontzertuaren ezabapenarekin. Lurralde Historikoek eta Nafarroak Estatuari ordaintzen diotenak ez duelako eraginik Estatuak gainontzeko Autonomia Erkidegoei egiten dien finantzaketan. Hortaz, argudioa haratago emanez, esan daiteke, desagerpenarekin inork onurarik jasotzen ez badu, bere existentziak ere beste lurraldeei kaltea sortzen diela justifikatzeak oinarria galtzen duela.

LAUGARRENA: Kontzertu Ekonomikoa, autonomia politikoa eta erantzukizun fiskalaren uztarketarako tresna egokia da. Kontzertua, autonomia eta erantzukizun fiskala elkartzeko tresna da, eta Estatu autonomiko batean bizi garen heinean, hau egituratzeko era ezin hobea dela uste dut. Gainera, ikusi dugun moduan, Kontzertua Konstituzioak, Gernikako Autonomia Estatutuak, Europako erakundeek eta euskal erakundeek babesten dute, eta hala izan behar da. Azken finean, Euskadin jasotako

diruarekin gure eskumenak ordaintzen ditugu, ez diogu Estatuari ezer eskatzen, eta ez diogu ezer zor ere. Galtzen atera daiteken bakarria Euskadi da, izan ere, zergak jasotzeko duen ahalmenaren menpe gaude. Kupoaren ordainketa betebeharrak bat da, honen zenbatekoa zehazten da, eta Euskadik jasotzeko duenarekiko independentea da, beraz, Euskadin burututako zerga kudeaketa okerraren erantzule bakarria hau izango litzateke. Hori dela eta, ez dago zalantzarik abantaila baino Kontzertu Ekonomikoa bidezkoa eta solidarioa den sistema bat dela, eta Euskadi dela aldebakarreko arriskua jasaten duena gainera.

BOSGARRENA: Lurraldean arteko solidaritatea eta herritarren arteko berdintasunak ez dute eragin negatiborik jasaten. Kontzertu Ekonomikoak ez ditu solidaritatearen eta berdintasunaren printzipioak urratzen. Kontzertuak aurreikusten du Euskadik Estatuarekin hitzartutako zenbatekoetan eta eran solidaritateari ekarpena egingo diola. Gainera, zenbateko hau ez da abantaila, alde biko erabaki bat den heinean, Estatuak ez lukeelako hori onartuko. Nolabait esateko, solidaritate eta berdintasun printzipioen galdakizuna apurtazioaren negoziazioan geldituko litzateke.

AZKENA: Kontzertu Ekonomikoari etorkizunerako aurreikusten zaion ibilbidea seguraski malkartsua izango da: Etorkizuna ez litzateke arriskuan egon behar. Ikusi dugun moduan, Konstituzioari eta Estatuari esker legitimatuta dagoelako, eta horretaz gain, Europar Batasunak ere hau babesten duelako.

Kontzertu Ekonomikoa tresna ekonomikoa izateaz gain, tresna politiko eta soziala ere bada, gure gizartearen ongizatearen oinarria delarik. Gainera, Kontzertuarekin alde bakarreko arriskua gure gain hartzen dugun heinean, etorkizuneko arrakasta lortzeko lanean jarraitzeko konpromezua hartzea ere beharrezkoa da. Argi dudana da, Kontzertuak urte hauetan zehar izandako oztopo guztiak gainditu ostean, etorkizunean izango dituenetatik ere bizirik eta indartuta aterako dela.

BIBLIOGRAFIA

ALLI ARANGUREN, Juan Cruz, *Los Convenios económicos entre Navarra y el Estado. De la soberanía a la autonomía armonizada*, Gobierno de Navarra, Iruña, 2010.

ALONSO ARCE, Iñaki, *El Concierto Económico Vasco: La renovación de 2002, fuentes documentales*, Ad Concordiam, Bilbo, 2003.

- *Derecho de la Unión Europea y Concierto Económico: principios vertebradores de la autonomía tributaria foral en el marco de la Unión Europea*, IVAP, Oñati, 2016.

ALONSO OLEA, Eduardo J, “El Concierto Económico: Origen, historia y evolución, 1878-1980”, EEAA, *El Concierto Económico ayer, hoy y mañana*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 2014.

ANDERSON, George, *Una introducción comparada al federalismo fiscal*, Marcial Pons, Ediciones Jurídicas y Sociales, Madrid, 2010.

ARMENTIA BASTERRA, Javier, “Concierto Económico: algunas consideraciones generales”, *Quincena fiscal*, 19 zkia, 2017ko azaroa, 21. Orr.

BERNALES SORIANO, Roberto, “Federalismo fiscal en el siglo XXI: una visión global de nuestro entorno”, EEAA, *Federalismo Fiscal y Concierto Económico: una aproximación desde el Derecho Comparado*, Eusko Legebiltzarra, 2016.

DIEZ PICAZO, Luis Maria, “Notas sobre el blindaje de las normas forales fiscales”, *InDret aldizkaria*, 3 zkia, 2010eko uztaila.

DUQUE VILLANUEVA, Juan Carlos, “Los procesos constitucionales de control de las normas forales fiscales vascas”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 90 zkia, 2010eko iraila, 29-71 Orr.

FUEST, Clemens, “Federalismo Fiscal y Nivelación Fiscal en Alemania”, *Gaztela-Mantxako Aldizkari Ekonomikoa*, 8 zkia, 2006, 261-289. Orr.

GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA, Ricardo, “El Concierto Económico entre Euskadi y el Estado: radiografía de situación”, EEAA, *Federalismo fiscal y Concierto Económico*, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz, 2016, 147-158 Orr.

LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago, “Los retos del Concierto Económico Vasco tras la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 11 de Septiembre de 2008”, *JADO Aldizkaria*, 17 zkia, 2009ko iraila, 37-84. Orr.

MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, Jose eta URREA CORRES, Mariola, “Unión Europea y financiación autonómica: la jurisprudencia del Tribunal de Justicia sobre los sistemas tributarios de los entes territoriales subestatales”, *RAEF*, 8 zkia, 2009ko apirila, 37-84 Orr.

MERINO JARA, Isaac, “A vueltas con las ayudas del estado de carácter fiscal”, *Forum fiscal de Alava*, 10-11 zkia, 2007, 25-42 Orr.

MONREAL ZIA, Gregorio, “El Concierto Económico: génesis y evolución histórica”, *Iura Vasconiae aldizkaria*, 6 zkia, 2009ko ekaina, 647-708. Orr.

MORÓN PÉREZ, Maria del Carmen, “El régimen fiscal de las ciudades autónomas de Ceuta y Melilla: presente y futuro”, *Crónica tributaria*, 121 zkia, 2006. 59-96 Orr.

PASCUAL MEDRANO, Amelia, “Diversidad y efecto frontera: el blindaje del Concierto Económico Vasco”, LOPEZ BASAGUREN, Alberto eta ESCAJEDO SAN EPIFANIO, Leire, *Los caminos del federalismo y los horizontes del estado autonómico*, IVAP, Bilbo, 2014, 1533-1541 Orr.

PINEDA RAMOS, Estefania, “El régimen económico y fiscal de Canarias: antecedentes y situación actual”, *Revista Atlantida*, 7 zkia 2006ko abenduaren 7koa, 183-213. Orr.

SERRANO-GAZTELUURRUTIA, Susana, *El Concierto Económico Vasco ante el Juez Comunitario*, IVAP, Oñati, 2012.

- “La incidencia de las ayudas de Estado en las cooperativas vascas”, *Gizarte ekonomiaren euskal aldizkaria*, 7 zkia, 2011, 111-153 Orr

SIMÓN ACOSTA, Eugenio Antonio, “Modelos singulares de financiación autonómica: el régimen foral”, EEAA, *El sistema de financiación territorial en los modelos de estado español y alemán*, INAP, Madril, 2000, 222-226 Orr.

TAJADURA TEJADA, Javier, “El Tribunal Constitucional como defensor de la foralidad: comentario de la STC 118/2016, de 23 de junio, sobre el nuevo régimen impugnatorio de las Normas Forales Fiscales”, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 114 zkia, 2018, 237-269 Orr.

ARAUDIA

EAE:

1981eko maiatzaren 13ko 12/1981 Legea, zeinaren bitartez Kontzertu Ekonomikoa onartzen den.

2002ko maiatzaren 23ko Legea, EAE-ko Kontzertu Ekonomikoa onartzen duena.

2017ko abenduaren 28ko 11/2017 Legea, 2017-2021 bosturtekorako kupoaren zehaztapenerako metodologia onartzen duena.

Espainia:

1812ko martxoaren 19ko Kadizko Konstituzioa.

1839ko urriaren 25eko Legea, Foruak berresten dituena.

1878ko otsailaren 28ko Errege Dekretua, Lehenengo Kontzertu Ekonomikoaren Legea.

1937ko uztailearen 23ko Lege Dekretua, Kontzertu Ekonomikoa abolitzen duena.

1841eko abuztuaren 16ko Legea, Nafarroako Foruak Eraldatzeko Legea.

1876ko uztailearen 21eko Legea, Foruak indargabetzen dituena.

1972ko uztailearen 22ko 30/1972 Legea, Kanarietako Eraentza Ekonomiko-fiskalari buruzkoa.

1978ko abenduaren 29ko Espainiar Konstituzioa.

1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriko Autonomia Estatutua.

1980ko irailaren 22ko 8/1980 Legea, Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzkoa.

1982ko abuztuaren 10eko 13/1982 Legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.

1990eko abenduaren 26ko 28/1990 Legea, zeinaren bidez Nafarroako Hitzarmena onartzen den.

1994ko uztailearen 6ko 19/1994 Legea, Kanarietako Erregimen Fiskal eta Ekonomikoaren berezitasuei buruzkoak.

1995eko martxoaren 13ko Lege Organikoa, Ceuta eta Melillaren Autonomia Estatutua onartzen duena.

2009ko abenduaren 18ko 22/2009 Legea, Eraentza orokorreko Autonomia Erkidegoen finantzaketa arautzen duena.

2010eko otsailaren 19ko Lege Organikoa, Auzitegi Konstituzionalaren eta Botere Judizialaren Lege Organikoak aldatzen dituena.

Europar Batasuna:

Europar Batasuneko Funtzionamenduari buruzko Hitzarmena.

Europar Batasuneko Hitzarmena.

JURISPRUDENTZIA

AK-ren 2016ko ekainaren 23ko epaia.

AKren 1990eko irailaren 20ko 140/1990 epaia.

AKren 2016ko ekainaren 23ko 118/2016 epaia.

KJANaren 2016ko martxoaren 10eko 110/2016 epaia.

AG-ren 1999ko abenduaren 4ko 7774/1999 epaia.

AGren 2004ko abenduaren 9ko epaia.

AGren 2004ko azaroaren 3ko epaia.

AGren 1999ko irailaren 30eko epaia.

EBJAren 2015eko abenduaren 15eko epaia , C-132/14.

EBJAaren 1982ko urriaren 6ko epaia, C-283/81.

EBJAaren 2006ko irailaren 6ko epaia, C-88/03.

EBJAren 2008ko irailaren 11ko epaia, C-428/06.

BESTELAKO ITURRIAK

Webguneak:

URIARTE SANTAMARINA , Pedro Luis, “Nuestro Concierto Economico; claves para entenderlo”, 2016ko otsailaren 28koa, 71. Orr (www.elconciertoeconomico.com).

URIARTE SANTAMARINA, Pedro Luis, “El Concierto Economico Vasco: una visión personal”, 2015eko urriaren 31koa, (www.elconciertoeconomico.com)

EUROPAKO PARLAMENTUA, “Regiones ultraperifericas (RUP)”, Fichas técnicas sobre la Union Europea, 2019 (www.europarl.europa.eu/factsheets/es)

Prentsa:

ELORDUY, Itxaso, “Entrevista a Pedro Luis Uriarte”, *InfoLibre*, 2015eko azaroaren 26koa.

MARTINEZ, Isabel, “Entrevista a Marino Finozzi, Presidente de la Asamblea del Véneto”, *El Pais*, 2008ko urriaren 4koa.